

# DOKTORE-TESIA

---

Goi-errendimenduko erakundeak:  
Erakunde-kultura eraldatzeko eredu baten  
diseinua, inplementazioa eta baliozkotzea,  
operazio-bikaintasunaren bila



**Aurkezlea:**

Asier Ipiñazar Epalza jn.


**Zuzendariak:**

Rosa María Rio Belver doktore and.

Enara Zarrabeitia Bilbao doktore and.



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Doktore-tesia

Goi-errendimenduko erakundeak:  
Erakunde-kultura eraldatzeko eredu baten diseinua,  
implementazioa eta baliozkotzea, operazio-  
bikaintasunaren bila

Aurkezlea:

Asier Ipiñazar Epalza jn.

Zuzendariak:

Rosa María Rio Belver doktore and.

Enara Zarrabeitia Bilbao doktore and.

Enpresen Antolakuntza Saila  
Proiektuen Ingeniaritzako Doktoregoa programa  
Bilboko Ingeniaritza Eskola  
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea  
Bilbo, 2023



Nire erauntsietan maitasunez lagun izan zaituztedan guztiei.

*«Behin erauntsia amaitutakoan, ez duzu gogoratuko nola lortu duzun, nola iraun duzun  
bizirik.*

*Erauntsia benetan amaitu den ala ez ere ez duzu jakingo.*

*Baina gauza bat bada segurua.*

*Erauntsi horretatik atera ondoren, ez zara izango bertan sartu zen pertsona bera.*

*Hori da erauntsi honen muina».*

- Hariku Murakami -



# ESKERTZAK

---

**D**oktore-tesi batek urteetako ahalegina eta dedikazioa behar du, eta, egiteko, pertsona askoren laguntza behar da, zuzenekoa edo zeharkakoa. Nire bizitzako etapa zoragarri eta ahaztezin hau amaitu ondoren, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet, bihotz-bihotzetik, duela urte batzuk ameskeria «baino ez zena» errealitate egiteko laguntza eman duten pertsona guziei.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiet tesia zuzendu duten Enara Zarrabeitia Bilbao eta Rosa María Río Berver doktoreei, hasiera-hasieratik nigan konfiantza izateagatik eta urte hauetan guztietan izandako pazientziagatik eta nire zereginen bideratzeko erakutsitako profesionaltasunagatik. Gozamina izan da haiekin lan egitea.

Arlo akademikoan, ezin dut ahaztu Aitor Ruiz de la Torre Acha doktorea, ordu asko eskaini baitizkit, eskuzabaltasunez, beti prest eta irribarrea ahoan zuela. Estatistikak niretzat zentzu praktikoa izatea lortu du.

Enpresen arloan, nire esker ona adierazi nahi diot ikerketa-lana egiteko aukera eman didan enpresari, emandako laguntzagatik, eskainitako baliabideengatik eta askatasun osoz esperimendatzeko aukera emateagatik.

Eta, bereziki, gogora ekarri nahi dut Enrique Luzán, ikerketaren hasieran instalazioaren zuzendaria izan zena. Nire zuzeneko arduraduna izan da, nire mentorea, nire *coacha*, eta pentsatu nahi dut nire laguna ere badela. Hura gabe ezinezkoa izango zatekeen azken urteetan gure lantokian gertatu den ezer.

Azkenik, arlo pertsonal eta hurbilenean, eskerrak eman nahi dizkiet nire gurasoei, bizitzan zehar transmititu dizkidaten balioengatik, uste baitut, neurri batean, tesiaren parte direla. Loreri, nire bizitza pertsonala zein profesionala argitu duen argia izan delako; hura gabe ezinezkoa izango zen doktore-tesia argitara ematea. Eta, azkenik, Maddiri; bederatzi urterekin badaki zer den doktore-tesi bat; inoiz ez dut ahaztuko haren poztasuna doktore-tesiarekin lotutako artikulu baten argitalpena harekin partekatzen nuenean.

**Zuen laguntza, maitasun eta ulermena izan gabe ez zukeen mereziko esfortzua egiteak.**

Asier Ipiñazar Epalza

Bilbo, 2023



# RESUMEN

---

La rápida globalización, el impacto de los mercados emergentes como los países de Europa del Este, India o China y, especialmente, la Gran Recesión del 2008, junto con el periodo pospandemia tras el COVID-19, han traído consigo un nuevo entorno cada vez más competitivo, dinámico y agresivo que pone a prueba la capacidad de actuar y reaccionar de quienes desean operar en él. En consecuencia, la excelencia operacional ha pasado a ser una necesidad vital como ventaja competitiva y, para conseguir la excelencia operacional, ser innovador a través de nuevas perspectivas como la gestión de la Cultura Organizacional se convierte en un factor clave.

En este contexto, el objetivo principal de esta investigación es diseñar, implementar y validar un modelo innovador de transformación de la Cultura Organizacional en búsqueda de la excelencia operacional para una empresa industrial ubicada en Bizkaia.

Tras cuatro años de minucioso trabajo a través de una rigurosa metodología, se ha creado un prototipo de modelo de transformación, desplegado en toda la planta de producción y validado científica, operativa y funcionalmente. Los resultados obtenidos permiten afirmar que el objetivo se ha cumplido, contribuyendo a la teoría actual de la Cultura Organizacional, a través del desarrollo empírico de un Modelo de Transformación de la Cultura Organizacional como referencia y ejemplo para aquellas empresas que deseen llevar a cabo una profunda transformación cultural, con el fin de crear un nuevo entorno de alto rendimiento.



# LABURPENA

---

**G**lobalizazio azkarrak, suspertzen ari diren merkatuen –Ekialdeko Europako herrialdeak, India edo Txina– eraginak eta, bereziki, 2008ko atzeraldi handiak, COVID-19aren pandemiaren osteko garaiarekin batera, gero eta ingurune lehiakorragoa, dinamikoagoa eta oldarigorragoa ekarri dute, zeinak ingurune horretan aritu nahi dutenen jarduteko eta erantzuteko gaitasuna probatzen baitu. Horren ondorioz, operazio-bikaintasuna ezinbesteko bihurtu da lehiarako abantaila gisa, eta, operazio-bikaintasuna lortzeko, funtsezkoa da berritzailea izatea, ikuspegi berrien bidez, hala nola erakunde-kulturaren kudeaketaren bidez.

Testuinguru horretan, ikerketa-lan honen helburu nagusia da erakunde-kultura eraldatzeko eredu berritzaile bat diseinatu, ezarri eta balioztatzea, Bizkaian dagoen industria-enpresa baterako operazio-bikaintasuna lortzeko.

Metodologia zorrotzean oinarritutako lan zehatza egiteko lau urteren ondoren, eraldaketa-eredu baten prototipo bat sortu da, zeina ekoizpen-instalazioan zabaldu baita eta zientifikoki, operatiboki eta funtzionalki balioztatu baita. Lortutako emaitzak ikusita, baieztatu ahal da helburua bete egin dela eta ekarpena egin diola erakunde-kulturaren oraingo teoriari, erakunde-kultura eraldatzeko eredu baten garapen enpirikoaren bidez. Erreferentzia eta eredu izan daiteke, goi-errendimenduko ingurune berri bat sortzeko, kultura-eraldaketa sakona egin nahi duten enpresentzat.



# ABSTRACT

---

The impact of emerging markets such as Eastern European countries, India or China and, especially, the Great Recession of 2008, together with the post-pandemic period after COVID-19, have brought a new environment increasingly competitive, dynamic and aggressive which tests the ability to act and react of those who wish to operate in it. Consequently, operational excellence has become a vital necessity as a competitive advantage, and to achieve it, being innovative through new perspectives such as the management of Organizational Culture becomes a key factor.

In this context, the main objective of this research is to design, implement and validate an Organizational Culture transformation innovative model in search of operational excellence for an industrial company located in Vizcaya.

After four years of thorough work through a rigorous methodology, a prototype transformation model has been created, deployed throughout the production plant and scientifically, operationally and functionally validated. The results obtained allow us to affirm that the objective has been achieved, contributing to the current theory of Organizational Culture, through the empirical development of an Organizational Culture Transformational Model as a reference and example for those companies that wish to carry out a deep cultural transformation, in order to create a new high performance environment.



# EDUKIEN AURKIBIDEA

---

<b>ESKERTZAK</b> .....	<b>i</b>
<b>RESUMEN</b> .....	<b>iii</b>
<b>LABURPENA</b> .....	<b>v</b>
<b>ABSTRACT</b> .....	<b>vii</b>
<b>EDUKIEN AURKIBIDEA</b> .....	<b>ix</b>
<b>1 SARRERA</b> .....	<b>3</b>
1.1. Ikerketaren testuingurua .....	4
1.2. Tesiaren egitura.....	7
<b>2 ESPARRU TEORIKOA</b> .....	<b>11</b>
2.1. Bilkatea-estrategia .....	11
2.2. Goi-Errendimenduko Erakundeak: operazio-bikaintasuerako bidea .....	14
2.3. Erakunde-Kultura: faktore bereizgarria industrian .....	16
2.4. Erakunde-Kultura kudeatzeko tresnak.....	17
2.5. Sintesia .....	24
<b>3 HELBURUAK ETA METODOLOGIA</b> .....	<b>27</b>
3.1. Ikerketaren helburua.....	27
3.2. Metodologia .....	27
3.2.1. EKEEren prototipoaren diseinua .....	28
3.2.2. EKEEren prototipoaren inplementazioa .....	30
3.2.2.1 1. aldia - Hasierako prestatze-lanak.....	30
3.2.2.2 2. aldia - Martxan jartzea.....	30
3.2.2.3 3. aldia - Funtzionamendu autonomoa .....	31
3.2.3. EKEEren prototipoaren baliozkotzea.....	31
3.2.3.1 Baliozkotze zientifikoa .....	31
3.2.3.2 Baliozkotze operatiboa.....	32

3.2.3.3	<i>Baliozkotze funtzionala</i> .....	33
3.2.4.	EKEE-ren azken bertsioaren definizioa.....	35
<b>4</b>	<b>EKOIZPEN-INSTALAZIOAREN DESKRIPZIOA</b> .....	<b>39</b>
<b>5</b>	<b>EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b> .....	<b>45</b>
5.1.	EKEE-ren prototipoaren diseinua .....	45
5.1.1.	EKEEren elementu nagusia.....	46
5.1.2.	EKEEren diseinu-elementuak .....	46
5.1.3.	EKEEren exekuzio-elementuak.....	47
5.1.4.	EKEEren lanabesak .....	48
5.1.4.1	<i>Komunikazio-matrizea</i> .....	50
5.1.4.2	<i>Nahasitako alderdiak motibatuzeko plana</i> .....	51
5.1.4.3	<i>Coachinga makinan bertan</i> .....	52
5.1.4.4	<i>Ikuspegia</i> .....	53
5.1.4.5	<i>Estrategiaren hedapena</i> .....	54
5.1.4.6	<i>Sarien eta aitorpenen matrizea</i> .....	55
5.1.4.7	<i>«0 galera» mentalitatea</i> .....	55
5.1.4.8	<i>Fasekako progresioa</i> .....	56
5.1.4.9	<i>Lerroak zuzendutako kudeaketa</i> .....	56
5.1.4.10	<i>Komunikazio-eremu irekiak</i> .....	57
5.1.4.11	<i>Lan- eta garapen-plana</i> .....	57
5.1.4.12	<i>EKren inkesta</i> .....	58
5.2.	EKEE-ren prototipoaren inplementazioa .....	60
5.2.1.	1. aldia - Hasierako prestatze-lanak .....	62
5.2.2.	2. aldia - Martxan jartzea .....	63
5.2.3.	3. aldia - Funtzionamendu autonomoa .....	65
5.3.	EKEE-ren prototipoaren baliozkotzea .....	65
5.3.1.	Baliozkotze zientifikoa.....	65
5.3.2.	Baliozkotze operatiboa.....	69
5.3.3.	Baliozkotze funtzionala .....	72
5.4.	EKEE-ren azken bertsioaren definizioa.....	77
<b>6</b>	<b>ONDORIOAK ETA MUGAK</b> .....	<b>85</b>
<b>7</b>	<b>ETORKIZUNERAKO LAN-ILDOAK</b> .....	<b>89</b>
<b>8</b>	<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>93</b>
<b>9</b>	<b>ERANSKINA</b> .....	<b>109</b>



<b>10 ARGITALPENAK</b> .....	<b>129</b>
10.1. I Artikulua .....	131
10.2. II Artukulua .....	133
<b>AKRONIMOEN ZERRENDA</b> .....	<b>xv</b>
<b>IRUDIEN ZERRENDA</b> .....	<b>xvii</b>
<b>TAULEN ZERRENDA</b> .....	<b>xix</b>





# **1 SARRERA**

---



# 1 SARRERA

---

**A**zken hiru hamarkadetan zehar, enpresen ekosistema eta ekosistema horrekin loturaren bat izan dutenek ezinbesteko izan dute ulertzea zer den VUCA ingurune batean lan egitea, nola kudeatu behar den eta nola egokitu behar den halakoetara, aurreikuspenean eta garapen ekonomikoan oinarritutako estrategiak garatzeko (Codreanu, 2016).

Estatu Batuetako armadak laurogeita hamarreko hamarkadan sortutako kontzeptu batetik eratorritako ingurunea da (Pangaribuan et al., 2020), eta esanahi hau dute sigla horiek, ingelesez: Volatility (V), Uncertainty (U), Complexity (C) and Ambiguity (A). VUCA edozein enpresari nahitaez eragiten dion esparrua da, eta liderrei, gerenteei eta, orokorrean, lantalde guztiei eskatzen die haien hazkunde-, kokapen- eta garapen-estrategiak berraztertzeke, mozkinak maximizatu nahi badituzte. Izan ere, hori da irabazi-asmoa duen edozein enpresaren helburu naturala (Nowacka & Rzemieniak, 2022).

Horrez gainera, COVID-19aren pandemiak eragindako kaos-garaiaren ondoren, zeinak mundua aurretiaz baliozkoak ziren sinesmen guztiak banan-banan birplanteatzera behartu baitu eta gizadiari aurrera egiten lagunduko dioten tresna berriak garatzera behartu baitu, erakunde-kulturaren arloko adituek planteatzen dute VUCA inguruneek kontzeptu berri baterako bidea egin dutela: BANI (Brittle, Anxious, Nonlinear and Incomprehensible) (Fernandes de Godoy & Rival Filho, 2021). Jamais Cascioek planteatu zuen lehen aldiz (Cascio, 2020; Valladares, 2021): BANI inguruneak dira egoera batzuk zeinetan baldintzak ez dira soilik ezegonkorrak, kaotikoak ere badira; emaitzak, aurreikusteko zailak izateaz gainera, erabat iragarrezinak dira, eta gertatzen dena ez da soilik zalantzazkoa, ulertezina ere bada (Grabmeier, 2020).

Hala, enpresa-ingurune aldakor, dinamiko, oldarkor eta desafiatzaile honek konstante bakarra izango du: aldaketa (Pathiranage, 2019). Eta, testuinguru berriek, gatazka berriek eta kezka berriek mundu osoaren ezinegonak berriaren itxura izatea eragin ahala, operazio-bikaintasuna lortzea helburu izatetik funtsezko beharrezana izatera pasatu da industria-erakunde guztientzat (Carrillo, 2016). Gertaera hori bereziki kritikoa da suspertzen ari den herrialdeetako ez den beste edozeinetatik globalki operatzen jarraitu nahi dutenentzat, herrialde horietan dauden

soldatekin zaila baita soldata-kostu txikiagoak dituzten beste herrialde batzuetako kostu baxuekin lehiatzea (Felipe et al., 2017; Hillebrandt & Barclay, 2022).

Enpresa horientzat jada ez da nahikoa eraginkorrak (baliabideen kudeaketa egokia) edo efikazak (emaitzetan oinarritutako ikuspegia) izatea, eta, beraz, biziraupen-kontu bat da berritzaileak izatea, beren prozesu guztiak sakon aztertuta ikuspegi berriak asmatzea, operazio-bikaintasuna lortzeko (Bortolotti et al., 2015; Pereira et al., 2020; Short & Palmer, 2003); horretarako, abantaila lehiakorrek lortzeko estrategiak sortu eta garatu behar dituzte, enpresek aukera izan dezaten beren eremu sozioekonomikoan posizio bat lortzeko, mantentzeko eta hobetzeko (Cantillo & Daza, 2011).


Tamaina horretako erronkak erakunde erresilienteak beharko ditu nahitaez, baita prozesu guztien berrikuspen sakona ere, operazio guztiak optimizatzeko eta High Performing Organization (HPO) bihurtzeko (Pereira et al., 2020). Gero eta garrantzitsuagoa izango da operazio-bikaintasunerako jardunbideen sustatzaileak identifikatzea, enpresa batek denboran zehar aurrez aurre dituen baldintzetara egokitzeko eta forma emateko (Fernandes de Godoy & Rival Filho, 2021), jarduketa-eremua alderdi ukiezinagoetarantz zabalduta, hala nola erakunde-kulturarantz (EK) (Waal, 2021).

Egoera horretan, ezinbestekoa da aipatzea EK aldatzeko, erakundeetako kideen portaeretan eta jarreteran eragin behar dela, haien helburu, sinesmen eta gaitasunetara egokitutako ereduen bidez (Chávez & Ibarra, 2016).

## **1.1. IKERKETAREN TESTUINGURUA**

Ikerketa-lan hau fabrikazio industrialaren ingurune erreal batean gauzatu da. Zehazki, 1931n sortutako enpresa multinazional batean. Mundu mailan, 143.000 langile ditu, 150 herrialdetan banatuta; haren 163 fabrikazio-instalazioetan eta I+G+b arloko 6 zentroetan era askotako produktuak egiten dira, automobilgintza-merkatuak batez ere. 1. irudiak 2021ean automobilgintza-merkatuak egindako produktuen eta gainerako produktuen banaketa erakusten du.


(% 16,7) Gainerako produktuak



(% 83,3) Automobilgintza-merkatutarako produktuak

1. irudia. 2021ean egindako produktuen banaketa (Automotive Company, 2021)

Enpresaren negozio nagusian –automobilgintzarako produktuak– duen merkatu-kuotari dagokionez, sektorearen 2019rako merkatu-kuota islatzen duen 2. irudian ikus daitekeenez<sup>1</sup>, ikerketa egin den enpresa lider da negozio horretan, merkatu-kuotaren %15,70 baitu (konfidentzialtasuna dela eta, ez dira jarri enpresen izenak).



2. irudia. Automobilgintzaren sektorerako produktuen merkatu-kuota, 2019an, enpresen arabera (Automotive Company, 2019)

<sup>1</sup> 2020ko eta 2021eko datuak ez dira adierazgarriak COVID-19ak munduko ekonomian izan duen eraginagatik.

Zehazki, enpresa multinazionalak Bizkaian duen fabrikazio-instalazio batean egin da. Instalazio hori Europak, Ekialde Ertainak, Indiak eta Afrikak osatutako negozio-eskualdeko hamabost fabrikazio-instalazioetako bat da. 3. irudiak enpresak negozio-eskualde horretan orotara duen presentzia islatzen du, eta egoitzetako bat ikerketa-lana egin den industria-instalazioa da.

Bizkaiko instalazioa 1933an sortu zen, Estatu Batuetako enpresa baten parte gisa, eta, sortu zenetik, haren negozio nagusiak automobilgintzaren industria izan du ardatz. 1988an, zuzeneko lehiakide batek xurgatu egin zuen Estatu Batuetako enpresa, eta oraingo enpresan sartu zen instalazioa.



3. irudia. Ikerketa-lana egin den enpresak Europak, Ekialde Ertainak, Indiak eta Afrikak osatutako negozio-eskualdean duen presentzia (tesiarene egilearena)

2021eko datuen arabera, 105.000 m<sup>2</sup>-ko azaleran, zuzeneko eta zeharkako 732 enplegatuk automobilgintza-merkatutako produktuak baino ez dituzte ekoizten, marka eta neurri ugariarekin.

Fabrikazio-instalazio huts gisa, haren jardura nagusia da lehengai eraldatzea eta azken produktua sortzea. Horretarako, ekoizpen-katea sei prozesu nagusitan banatuta dago. Prozesu horiek bata bestearen atzetik burutzen dira, azken produktua lortu arte.

Plantillari dagokionez, zuzeneko eta zeharkako langileen arteko erlazioa % 65-% 35 da, eta, beraz, zuzeneko 500 langilek, gutxi gorabehera, sei ekoizpen-sailtan banatuta betetzen dituzte beren eginkizunak. Gainerako langileek laguntza-eginkizunak betetzen dituzte, besteak beste:



mantentze-lanak, kalitatea bermatzeko lanak, zerbitzu teknikoa, ingeniaritza, giza baliabideak, ingurumena, osasunaren prebentzioa eta segurtasuna.

Gainerako negozio-prozesuak –erosketak, logistika, finantzak edo salmentak– instalazioan egiten diren operazioen ekintza-eremutik kanpo daude, eta, beraz, ez dira sartzen ikerketa-lan honetan, eskusiboki produktu bukatuaren fabrikazioan diharduen komunitatean zentratu baita.

Taldearen barruan izan duen ibilbide luzean, Bizkaiko instalazioak aitortpena jaso du bere produktuen kalitate handiagatik eta enpresa-errendimendu onagatik; horri esker, lehiakorra izan da, soldata-kostu handiko posizio batetik lan eginda ere. Hala ere, joera hori erabat aldatu zen 2008-2014ko atzeraldi handiarekin, garai horretan, ekonomiaren gainerako arloen bide beretik, salmentek behera egin baitzuten, instalazioarentzat egoera jasanezina sortuz. Hori dela eta, 2015ean, instalazioak bidea berrasmatu behar izan zuen, bizirik irauteko.

Testuinguru horretan, instalazioko zuzendaritza-taldeak ikusi zuen aurrera egiteko aukera bakarra zela giza kapitala indartzea eta kapital hori bere jardueraren euskarri bihurtzea. Hala, erabaki zen pertsonetan oinarritutako eredu bat diseinatzea, instalazioan zegoen EK eraldatzeko, eboluzionatu eta HPO bihurtzeko.

## **1.2. TESIAREN EGITURA**

Hauek dira tesiaren apartatu nagusiak: «Sarrera», «Esparru teorikoa», «Helburuak eta metodologia», «Ekoizpen-instalazioaren deskripzioa», «Emaitzak eta eztabaida», «Ondorioak eta mugak», «Etorkizunerako ikerketa-ildoak», «Bibliografia» eta azken «Eranskina».

Hala, sarreran lanaren testuingurua kokatu ondoren, bigarren apartatuak ikerketaren testuinguru teorikoa ematen du, baita interes-azterlanaren eremuaren inguruko ezagutzaren azterketa bibliografikoa ere. Hirugarren apartatuan, egindako ikerketaren helburuak zehazten dira eta erabilitako metodologia azaltzen da. Gero, industriaren arloko doktore-tesi bat denez, laugarren apartatuan zehatz deskribatzen da azterlana egingo den ekoizpen-instalazioa, eta, bosgarrenean, ikerketaren emaitzak erakutsi, aztertu eta eztabaidatzen dira. Jarraian, ondorioen apartatuan, ikerketaren aurkikuntzak, ekarpenak eta mugak deskribatzen dira, eta, ondoren, zazpigarren apartatuan, ezagutzan sakontzeko aukera emango duten etorkizuneko ikerketa-ildoak identifikatzen dira.

Azkenik, zortzigarren apartatuan, bibliografiaren zerrenda dago, non informazio-iturri gisa erabilitako dokumentuak jaso baitira.

Dokumentuak bi eranskin ditu. Batean, diseinatutako ereduak behar bezala ezartzeko sortu diren formatuak daude. Eta, bestean, egindako ikerketan lortutako emaitzetan oinarrituta egindako argitalpenak.



## **2** ESPARRU TEORIKOA

---



## 2 ESPARRU TEORIKOA

**O**perazio-bikaintasuna lortzea helburu iraunkor bat izan da industria-erakunde guztientzat, are gehiago orain, munduak ziurgabetasun-garaiak bizitzen ari den honetan, non ingurua kaotiko eta ezegonkor bihurtu baita (Carrillo, 2016). Adituek aurreikusitakoaren arabera, gainera, etengabeko ziurgabetasun-egoera hau luzerako da eta, beraz, errealitate berri honetan elementu konstante bakarria aldaketa da (Pathiranaage, 2019).

Erakunde askoren biziraupena mehatxupean dago, eta sakon aztertu behar dituzte beren prozesu guztiak, operazioak optimizatzeko eta HPO erakunde bihurtzeko. Lan teorikoek zein enpirikoek ondorioztatu dute lotura estua dagoela HPOren eta errendimenduaren artean Key Performance Indicators (KPI) eraginkorren ikuspegitik (Becker & Huselid, 1983; Pereira et al., 2020).

### 2.1. BILKATEA-ESTRATEGIA

Hurrengo apartatuan, ikerketa-lanaren marko teorikoa definitzeko eta lana bera egiteko erabili diren informazio-iturriak zehazteko funtsezkoak eta beharrezkoak diren dokumentu zientifikoak identifikatzeko bilaketa-estrategia zehazten da.

Bilaketa-estrategia horren hasieran, azterlanaren gai nagusiaren ahalik eta definiziorik zabalena egin da. Gero, galdera piztaile bat planteatzen da, azterketa-eremua osorik jasotzen dela bermatuta. Azkenik, aurreko bi urratsei esker, ikerketaren gako-kontzeptuak identifikatzen dira.

Jarraian, prozesua eta fase bakoitzaren emaitzak zehazten dira:

- ✓ Gai nagusia: Goi-errendimenduko erakundeak.
- ✓ Galdera piztailea: Diseinatu ahal da erakunde-kultura aldatuko duen eredu bat, operazio-bikaintasuna hobetuta eta, hala, goi-errendimenduko erakundeak lortu?
- ✓ Gako-kontzeptuak: «Goi-errendimenduko erakundeak», «erakunde-kultura», «erakunde-kultura kudeatzeko ereduak».

Hasierako gako-kontzeptuak finkatu ondoren, 4. irudiak fluxu-diagrama batean irudikatzen du intereseko artikulu zientifikoen bilaketa. Oinarria "Scopus" datu-basea izan da, duen estaldura handiagatik (Alvarez-Meaza et al., 2020), eta jakintza-arloen arabera iragazi da: "Business, Management and Accounting", "Social Science", "Engineering", "Economics, Econometrics and Finance" eta "Decision Sciences". Ikerketaren azterketa-eremuarekin lotura estuena duten jakintza-arloak direla uste da.

4. irudian ikusten denez, bilaketa kontzeptu orokor batekin hasi da, eta, gero, gehiago zehaztu da, ikasitakoaren eta ikerketaren errekerimendu berrien arabera.


	Kontzeptu gakoa	Kontsulta	Artikulu-kop. <sup>2</sup>
Orokorra	<b>Goi-errendimenduko erakundeak</b>	TITLE-ABS-KEY ( "High perform* Organi*ation" ) AND PUBYEAR > 1981 AND PUBYEAR < 2023 AND ( LIMIT-TO ( SUBJAREA , "BUSI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "SOCI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "ENGI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "ECON" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "DECI" ) )	333
	<b>Erakunde-kultura</b>	TITLE-ABS-KEY ( "organi?ation* culture" ) AND PUBYEAR > 1981 AND PUBYEAR < 2023 AND ( LIMIT-TO ( SUBJAREA , "BUSI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "SOCI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "ENGI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "ECON" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "DECI" ) )	18.188
Zehatza	<b>EK kudeatzeko ereduak</b>	TITLE-ABS-KEY ( "organi?ation* culture" AND ( "model*" OR "tool*" OR "instrument*" ) ) AND PUBYEAR > 1981 AND PUBYEAR < 2023 AND ( LIMIT-TO ( SUBJAREA , "BUSI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "SOCI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "ENGI" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "ECON" ) OR LIMIT-TO ( SUBJAREA , "DECI" ) )	6.375

Bilaketa-prozesua


4. irudia. Intereseko artikulu zientifikoen bilaketaren fluxu-diagrama

Jarraian, 5., 6. eta 7. irudiek kategoria bakoitzeko argitalpenen denbora-analisia irudikatzen dute.


<sup>2</sup> 2022-12-31ra arte



5. irudia. «Goi-errendimenduko erakundeak» kontzeptuari buruz urterik urte argitaratutako artikulu kopurua



6. irudia. «Erakunde-kultura» kontzeptuari buruz urterik urte argitaratutako artikulu kopurua



7. irudia. «Erakunde-kultura kudeatzeko ereduak» kontzeptuari buruz urterik urte argitaratutako artikulu kopurua

Denbora-analisiek erakusten dute ikerketa-eremuen garrantziak gora egin duela XXI. mendearen hasieratik, une horretan hasi baitzen komunitate zientifikoa gero eta ekarpen gehiago egiten, eta horrela izan da gaur arte.

Aztertu beharreko artikulu zientifikoak haien adierazgarritasunaren arabera (aipamen-kopurua) aukeratu dira, eta garrantzi handiagoa eman zaie orain dela gutxi argitaratutakoei, azterketa-eremuan dauden azken joerak hartzeko.

## **2.2. GOI-ERRENDIMENDUKO ERAKUNDEAK: OPERAZIO-BIKAINTRASUERAKO BIDEA**

HPO kontzeptua 1982an erabili zuten lehen aldiz Peters eta Watermanen, "In search of excellence" lanean (1982). Geroago, arloko adituek gehien onartutako HPOren definizioa André A. de Waalek proposatutakoa da (2007). Honela definitzen du:

«Lehiakideek baino finantza-erabaketa hobekak denbora luzeagoz lortzen dituen erakundea. Horretarako, ondo egokitzen da eta azkar erantzuten du aldaketan aurrean, epe luzearako ikuspegiarekin, eta kudeaketa-egitura integratua eta lerrokaturatua ezartzen du, etengabe hobetzen ditu bere oinarritako gaitasunak eta enplegatutako aktibo nagusiztat jotzen ditu».

Egilearen arabera, HPO baten ezaugarria da norbanako bakoitzaren gaitasunak errespetatu eta garatzea, aniztasunaren erabilera produktiboa sustatzea eta jarduketaren printzipio sendoetan oinarritutako operazioak egitea. Horrez gainera, HPOetan ikuskera argi bat dago, erakundeko kide guztiek partekatzen dutena, eta guztiak animatzen dituzte parte hartzera eta guztiak inplikatzeko lorpenean. Beti egiten da lan taldean eta etengabeko hobekuntza sustatzen da, galerarik gabeko mentalitatearen bidez (Waal, 2021).

Azken urteetan HPOri buruz argitaratutako azterlanek hainbat fase izan dituzte beren bilakaeran (Do & Mai, 2021). Lehenengo kontzeptu-fasean, azterlan horien ardatza HPO kontzeptuaren definizioa zen. Hala, Chieraren (1994) definizioaren arabera, HPO da sindikatuaren eta administrazioaren arteko harreman orekatua duen erakundea, hazkunde korporatiboa eta bere enplegatuentzat kalitateko enplegu iraunkorra sortzeko. Bulgerek dioenez (1995), goi-errendimenduko erakundeak ez dira kasualitatez sortzen, erakundeak bere negozio nagusian eta euskarri-prozesu garrantzitsuetan fokuratuta mantentzeko duen gaitasunaren bidez eratu eta mantentzen baitira.



Kontzeptu-fase horren ondoren, HPO kontzeptuari buruzko azterlanek HPOren aurrekariak eta haien aplikagarritasun praktikoa identifikatzeko bidea egin zuten. Kirkman eta beste batzuek (1997) egiaztatu dute, praktikan, HPO bat erakundearen egituraren eta haren enpresa-ingurunearen eskaeren arteko doikuntza lortzeko prozesu dinamikoaren adierazpena dela. Bestalde, Owen eta beste batzuek (2001) baieztatzen dute goi-errendimenduko erakunde jasagarri bat dela merkatuko itxaropenei erantzuten jarraitzeko gai dena, horretarako behar diren jardunbideak izanda.

Muldrow eta beste batzuek (2002), berriz, hobekuntzak egiteko neurri egokiak hartzeko, beren gaitasunen ebaluazio zehatzarekin parekatzen dituzte goi-errendimenduko erakundeak. Eta Osborne & Cowenek (2002) osatzen dute esanez goi-errendimenduko erakundeek ezaugarri batzuk dituztela eta ezaugarri horiek enpresa guztien eskura daudela, industria edo negozio-eskala edozein dela ere. Bestalde, Jonesek (2005) erlazio bat ezartzen du HPOren eta haren helburuen artean, eta baieztatzen du helburu horiek emaitzaren eta prozesuaren inguruan ezartzen direla, eta, ondorioz, errendimendua zehatz-mehatz mapatzen dela, bost mailatan: ikuskera, lorpena, berrikuntza, moldagarritasuna eta ongizatea.

Lloyd eta Payne (2006) baieztatu dutenez, sartzen diren praktiken arabera, lana eta lan-harremanak antolatzeke era oso ezberdin gisa ulertu ahal da goi-errendimenduko lana. Heerden eta Roodtek (2007), berriz, beste urrats bat ematen dute eta lehen aldiz ezartzen dute kultura korporatiboa operazio-bikaintasunaren eragile gisa, baieztatzen baitute HPOren oinarrian kultura korporatiboa, erakundearen balioak eta sinesmen-sistemak daudela, zeinak esparru integratu batek eta erakundeek beren lehiakortasuna eraikitzeke baliatzen duten oinarria osatzen duten determinatzaile estrategikoez markatuta baitaude.

Azken hamarkadan sartuta, argi dago HPOri buruzko azterlanek HPOren eta haren determinatzaileen arteko loturan oinarritutako fase batean daudela. Lan horiek HPO horiek espero dituzten emaitzei eta erakunde horiek sortzen dituzten mekanismoei buruzko ikaskuntzak aurkitu nahi dituzte, azpisistema txikiagoetan eta estuki lotutakoetan disezionatuta. Arnott eta beste batzuek (2009) iraunkortasuna talentu- eta antolaketa-estrategietan integratzeko erronka aztertzen dute. Horretarako, jakintzan, abilezietan eta jarreretan inbertitu behar da, goi-errendimendua lortzeko. Houghkek (2012) lotura bat ezartzen du goi-errendimendu iraunkorraren onetsitako finantza-metrika estandarizatuen artean. Eta Amah eta Oyetundek (2019) gizarte- eta ingurumen-testuinguruen arloko lorpenak gehitzen dituzte finantza-lorpenetan, eta baieztatzen dute emaitzak lortzeko egindako ekintzak (bitartekoak) kontuan hartu behar direla bikaintasuna baloratzen denean.

HPO baten determinatzaileen bilaketan, Liang eta Carneyk (2021) baieztatzen dute, bide horri ekin nahi dioten erakundeen kasuan, operazio-bikaintasunerako edo HPOrako bideak nahitaez eskatuko duela haien eragin-eremua zabaltzea, eta kontuan hartu behar direla bai gertakizun kontziente behagarriak bai ikusten ez diren azpiko egiturak, inkontzienteak eta sakonagoak direnak. Teknikoki hitz eginda, EK hobeto ezagutzea baino ez da.

### **2.3. ERAKUNDE-KULTURA: FAKTORE BEREIZGARRIA INDUSTRIAN**

EK kontzeptua definitu duten zenbait ikerketa badaude ere, ezagunena eta onartuena da Edgar Scheinek (1990) "Organizational Culture and Leadership" lanean emandakoa:

«Partekatutako oinarrizko egoera batzuen patroia, talde batek kanpo-egokitzapenerako edo barne-integraziorako arazoak konpondu ahala ikasi duena. Nahiko ondo funtzionatu du baliozkotzat jotzeko, eta, beraz, kide berriei erakusteko, arazo horiei dagokienez, ikusteko, pentsatzeko eta sentitzeko modu egoki gisa».

Norbanako baten nortasunaren baliokide, erakunde bakoitzak bere kultura du, gauzak egiteko modua islatzen duena, eta haren eginkizunetako bat da erakundeen berezko identitatearen alderdiak hobetzea edo ordeztzea (Abdullah et al., 2014; Curhan et al., 2008; Hartnell et al., 2011; Maish, 2004).

Gizarte-antropologiatik eratorrita, kulturaren kontzeptuak bilakaera bat izan du erakundeen testuinguruaren bitartez, eta lehiarako abantaila bat dakar finantza-errendimendua hobetzeko gai delako. Izan ere, EK eta finantza-errendimendua estuki lotuta daude (Belias et al., 2015; Berson et al., 2008; Lee et al., 2016) EK-k enplegatuen portaeretan duen eraginaren bidez eta negozioaren emaitzetan eta ekintzen eraginkortasunean inpaktua izango duen nahitako giroa diseinatzeko duen gaitasunaren bidez (Boyce et al., 2015; Cantillo & Daza, 2011; Valmohammadi & Roshanzamir, 2015). Horregatik, EKren kudeaketak zeregin garrantzitsua du erakundeetan, eta ikerlari askoren azterketaren xede bihurtu da (Bortolotti et al., 2015).

Erakundeen hazkunde jasagarriak ahalbidetzea eta enplegatuen garapena sustatzea, negozioaren beharrezanekin lerrotatutako EK bat sortuta, lehiarako abantaila dira (Azanza et al., 2013; Di Fabio & Peiró, 2018; Liang & Carney, 2021). Hala, EK sendoa duen erakunde batek jokabide-kodeak eta balio bateratuak partekatzen ditu bere kideekin, haien helburuak lortzen laguntzen die, eta, muturreko egoeretan, bizirik irauteko modu bakarra da: EK aldatu edo desagertu (Iljins et al., 2015; Tsai, 2011).

Ikuspegi pragmatiko batetik, EK ondo kudeatu ahal da eta behar da. Hala ere, horretarako, esfortzua behar da, baita adorea handia ere, epe ertain eta luzerako lan konplexua baita, nahiz eta epe laburrera ekintza azkarrak eta eraginkorrak behar izan (de Witte & van Muijen, 1999). Ondorioz, lana errazteko, autore askoren gomendioa da kontzeptuaren ikuspegi sistemikoa baliatzea: elkarren artean lotura estua duten azpisistema batzuen batura, EK sortzeko (Clawson, 2014).



EK horrela ulertzeko moduaren arabera, azpisistema batean dauden arazoak konpontzeko egiten den edozein ekintzak eragina izango du besteetan, erakundearen elementu guztiak elkarren artean lotuta baitaude. Laburbilduta, erakunde baten kultura ez da aldatzen apetaren edo modaren arabera; arrazoi sendo bat behar da, eta, lehenago azaldu den bezala, muturreko egoera batean, negoziokoak bizirik irautea ekar dezake (Iljins et al., 2015).



#### **2.4. ERAKUNDE-KULTURA KUDEATZEKO TRESNAK**

Mende honetan EKren ikerketa-eremuak gero eta interes handiagoa sortu du, batez ere erakunde-aholkularietan. Interes horren oinarria da EK kudeatzea lortzea, erakundeetan eraginkortasuna maximizatu ahal izateko (García Navarro, 2017; Patterson et al., 2004).

Ikerketa-eremu horretako lan zientifiko garrantzitsuenak aztertuta, ikusten da EKren kudeaketarekin lotutako azterlan enpirikoek ikuspegi bera partekatzen dutela: teoria edo hipotesi bat tresnen sorta zabalaren bidez aztertzea (Huyler & McGill, 2019; Taras et al., 2009).

1. taulan, EK definitzeko, neurtzeko eta ebaluatzeko erabilitako tresna garrantzitsuenak definitzen dira, ikerketa-eremuan espezializatutako literaturarekin bat etorrira:

Tresnak	Deskripzioa	Ezaugarri kulturalak/domeinuak/eskalk/dimentsioak	Informazio osagarria (irudiak)
<b>Denison Organizational Culture Survey (DOCS)</b> (Denison et al., 2014)	EKren eraginkortasuna neurtzeko inkesta ezagunenetako bat. Ereduak lau ezaugarri kultural hartzen ditu, koadrante batzuetan irudikatuta. Bi ardatz uztartuta lortzen dira: 1) Barrukoa/Kanpokoa 2) Malgutasuna/Egonkortasuna	1. Moldagarritasun-ezaugarria 2. Misio-ezaugarria 3. Tinkotasun-ezaugarria 4. Partaidetza-ezaugarria	 <p>(Zeng &amp; Luo, 2013)</p>
<b>Organizational Culture Profile (OCP)</b> (Ostroff et al., 2012)	Denison inkestarekin batera, gehien erabilitako EKren inkestetako bat da, baina Denisonen ez bezala, haren dimentsioak ez daude teorikoki lotuta errendimenduemaitzekin. Hala ere, dimentsioek kutsu positibo bat dutenez, dimentsio guztietan puntu asko lortuz gero goi-errendimendua lortu beharko litzateke.	1. Berrikuntza 2. Xehetasuneko arreta 3. Emaitzarako orientazioa 4. Oldarkortasuna 5. Laguntza 6. Enfasia sarietan 7. Taldea ardatz 8. Erabakia	
<b>GLOBE</b> (Shi & Wang, 2011)	Kulturak lidergoan, erakundearen eraginkortasunean, lehiakortasun ekonomikoan eta aztertutako sozietateetako kideen gizatasunean dituen ondorioei buruzko hipotesia frogatu nahi ditu. Bederatzi dimentsio daude, eta ez dago dimentsioen eta jardueraren emaitzen arteko loturaren ebidentziarik. Horregatik, GLOBE prestakuntza-profila duen inkestatzat jotzen da.	1. Boterearen distantzia 2. Ziurgabetasuna saihestea 3. Kolektibismo instituzionala 4. Aserbitatea 5. Genero-desberdintzea / Iguaitarismoa 6. Errendimendurako orientazioa 7. Giza orientazioa 8. Talde-kolektibismoa 9. Etorbizunerako orientazioa	 <p>(GLOBE, 2005)</p>

<p><b>Competing Values Framework (CVF)</b> (Fiordelisi et al., 2019)</p>	<p>Erakunde-eraginkortasunaren adierazle nagusiak aurkitzeko garatutakoa. Galdera hauek erabiltzen dira: Zein dira erakunde bat eraginkorra den ala ez zehazteko irizpideak? Zein dira erakunde-eraginkortasuna definitzen duten faktoreak? Noiz jotzen du norbanako batek erakunde bat eraginkortzat? Zein adierazle ditu buruan? Eredu honek literaturan asko erabili den EKren taxonomia bat erabiltzen du.</p> <p>CVF-k bi dimentsio hartzen ditu aintzat:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Ikuspegiaren dimentsioa (ardatz bertikala), malgutasun, diskrezio eta dinamismotik egonkortasun, ordena eta kontroleraino hartze duena.</li> <li>2) Egituraren dimentsioa (ardatz horizontala), barne-orientazio, integrazio eta batasunetik kanpo-orientazio, bereizte eta lehiaraino hartzen duena.</li> </ol> <p>Bi dimentsio hauek gurutzatuta, lau azpidomeinu kultural sortzen dira.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Klana</li> <li>2. Adhokrazia</li> <li>3. Merkatua</li> <li>4. Hierarkia</li> </ol>	
<p><b>Organizational Culture Inventory (OCI)</b> (Zaderey &amp; Bonavia, 2016)</p>	<p>Aldaketa indibiduala eta erakunde-garapena diagnostikatzeko diseinatu da (Cooke &amp; Rousseau, 1988). OCI erakundeek egiten duten horretan zentratzen da, eta erakunde bateko kideen jokabide-eredua eta haien nagusiek saritzen eta zigortzen dituzten jokabideak neurtzen ditu. Eredu honek hiru kategoriatan banatzen du kultura, 4 atalen bitartez: gogobetetasun-estiloak, pertsonenganako orientazioa, segurtasun-premiak eta zereginetara bideratutako orientazioa.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kultura eraikitzailea</li> <li>2. Kultura pasiboa eta defentsarakoa</li> <li>3. Kultura oldarkorra eta defentsarakoa</li> </ol>	

<p><b>Kilmann-Saxton Culture Gap Survey (CGS)</b> (Kilmann diagnostics, 2017)</p>	<p>CGS EKren ebaluazio kuantitatiboa eman duen lehena dela uste da. Ebaluazio horri esker, kultura errearen eta nahi den kulturaren artean lau arlotan dauden ezberdintasunak zehaztu ahal dira.</p> <p>Lau arlo horiek haren bi dimentsioak gurutzatuta ateratzen dira:</p> <p>1) Kezkak: Teknikotik gizatiarrera 2) Epea: Laburretik luzera</p> <p>Eredu honek tresna sistematiko bat eskaintzen du kultura-arauen diagnostikoa egiteko.</p> <p>Benetako arauak eta nahi diren arauak alderatuta haien arteko ezberdintasunak kalkulatzeko direnean, kultura-arrakalaren lau puntuazioak lortzen dira.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zereginen berrikuntza</li> <li>2. Askatasun pertsonala</li> <li>3. Gizarte-harremanak</li> <li>4. Zereginen euskarria</li> </ol>	<div style="text-align: center;"> <p>Kezka teknikoak</p> <table border="1" style="margin: auto;"> <tr> <td style="padding: 5px;">Zereginen euskarria</td> <td style="padding: 5px;">Zereginen berrikuntza</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Gizarte-harremanak</td> <td style="padding: 5px;">Askatasun pertsonala</td> </tr> </table> <p>Giza kezkak (Kilmann diagnostics, 2017)</p> </div>	Zereginen euskarria	Zereginen berrikuntza	Gizarte-harremanak	Askatasun pertsonala
Zereginen euskarria	Zereginen berrikuntza						
Gizarte-harremanak	Askatasun pertsonala						
<p><b>Corporate Culture Survey (CCS)</b> (Glaser, 2011)</p>	<p>Eredu hau erakundearen izaerari eta indarguneei buruzko ikuspegi argia emateko diseinatu da, erakundearen errendimendua hobetzeko. Galdetegi baten bitartez, eredu honek enplegatuek erakundeari buruz dute iritzia islatzen du, bederatzi kategoria dituen eskala baten bidez. Kategoria horiek oinarritzat jotzen ditu HPO batean.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Errendimendua / Bikaintasuna</li> <li>2. Talde-lana / Komunikazioa</li> <li>3. Lidergoia / Ikuskapena</li> <li>4. Errentagarritasuna / Kostearen efizientzia</li> <li>5. Kideekiko / Bazkideekiko harremanak</li> <li>6. Bezeroekiko harremanak</li> <li>7. Berrikuntza / Sorkuntza</li> <li>8. Prestakuntza / Garapena</li> <li>9. Argitasuna / Irekitasuna</li> </ol>					
<p><b>Organizational Culture Assessment Questionnaire (OCQ)</b> (Sashkin &amp; Rosenbach, 2013)</p>	<p>Eredu honek arrazoitze hau du oinarrian: erakunde guztiek egin behar dituzte eginkizun erabakigarriak bizirik irauteko. Eginkizun horiek erakundeko kideek partekatutako balioak eta sinesmenak izan behar dituzte euskarri, kideak baitira, funtsean, erakunde-eraginkortasunerako indar boteretsuena.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aldaketaren kudeaketa</li> <li>2. Helburuen lortzea</li> <li>3. Talde-lanaren koordinazioa</li> <li>4. Kultura indartsua eraikitzen</li> <li>5. Bezeroarenganako orientazioa</li> </ol>					

1. taula. EK definitu, neurtu eta ebaluatzeko tresna garrantzitsuenak

Lehenago azaldu denez, 1. taulan definitutako tresnak dagoen aukera zabalaren lagin bat baino ez dira. Tresnen aniztasunaren adibide gisa, Jungkek eta beste batzuek egindako ikerketan (2009), egileek hirurogeita hamaika ere identifikatu zituzten, baina bakar batek ere ez du onarpen unibertsalik (Sampieri et al., 2014).

Lan zientifiko garrantzitsuenak aztertuz gero, argi geratzen da, gainera, metodologia definituen bidez, EKren eraldaketara bideratutako EKren diagnostikoaz eta kudeaketaz arduratzen diren eruedetan oinarritutako azterlan enpirikoak falta direla, hau da, aurretiaz definitutako eredu baten bidez benetako testuinguru batean aplikatutako EKren eraldaketa bat aztertu duten azterlanak falta direla. Inguruabar horrek berretsi egiten du EK kudeatzeko ezarritako prozesu batek komunitate zientifikoari emango liokeen balio erantsia (Handari Wahyuningsih et al., 2019; Ostroff et al., 2012).

Hala, Kimek eta Changek (2019) ikerketa-eremuaren garrantzia nabarmentzen dute, eta baieztatzen dute EK metodologia definituen bidez diagnostikatzeko eta kudeatzeko eruedetan oinarritutako azterlan enpirikoek inpaktu handiko balio erantsi itzela izango luketela komunitate zientifikoarentzat. Imranek eta beste batzuek (Imran et al., 2022) baieztatzen dute EK antolaketa-errendimenduan eragiten duen faktore bat dela, baina, hala ere, ez dagoela azterlan enpirikorik EKren eta antolaketa-errendimendu horren arteko loturari buruz. Inguruabar hori berretsi dute Cújarek eta beste batzuek (2013) "Cultura Organizacional: Evolución en la medición" lanean, non bi hamarkadatan zehar argitaratutako nazioarteko 20 azterlan enpiriko alderatu baitzituzten.

Cújarek eta beste batzuek (2013) egindako lana oinarritzat hartuta, 2. taulan, EKren kudeaketari buruz argitaratutako eta beste autore batzuek gehien aipatutako azterlan enpirikoak biltzen dira.

Urtea	Azterlanaren xedea
1990	IBM taldeko (International Business Machines) bai Danimarkako bai Herbehereetako enpresak aztertu zituen G. H. Hofstedek (1990) erakunde-kultura dela eta.
1991	Cameronek eta Freemanek (1991) egindako azterlana, zeinean oinarritzko 4 itemetan antolatu baitzuten erakunde-kultura, malgutasunaren eta egonkortasunaren parametroen arabera: klanak, adhokrazia, hierarkia eta merkatua.
1999	Wallacek eta beste batzuek egindako azterlana (1999), zeinaren helburua baitzen erakunde-kultura, erakunde-giroa eta gerentzia-balioak lotzea.
2003	Lundek egindakoa azterlana (2003), non erakunde-kulturaren eta laneko gogobetetasunaren arteko lotura aztertu baitzen.

---

2004	Antolaketa-elementuen eta jakintzen transferentziaren errendimenduaren arteko loturari buruzko ikerketa-lana. Bost aldagai independente nagusi erabili ziren: antolaketa-kultura, antolaketa-egitura, teknologia, pertsonak/giza baliabideak eta direktiba politikoa. (Omar Sharifuddin Syed-Ikhsan & Rowland, 2004)
2006	Irango ospitaleetan erabateko kalitatearen kudeaketarako ezarritako ereduaren arrakastan EK-k izandako eraginari buruzko azterlana (Rad, 2006).
2006	Txinako eraikuntza-enpresa batean egindako azterlana, Txinako bezalako ekonomia batean (sozialista) EKren eraginari buruzkoa (Liu et al., 2006).
2008	Grezian egindako azterlana, bertako ospitale publikoetan dauden kultura-dimentsioak identifikatzeko (Bellou, 2008).
2008	Erizain-buruen kasuan, lidergo transakzionala eta transformatzailea erakunde-kulturarekin lotuta dagoela erakusten duen azterlana (Casida & Pinto-Zipp, 2008).
2009	Erakunde-kulturaren eta enpresen gizarte-erantzukizunaren artean lotura dagoela zehaztu zuen ikerketa (Übius & Alas, 2009).
2009	Greziako Larissako Teknologia Hezkuntzako Institutuari aplikatutako azterlana, institutuko kultura, laneko gogobetetasuna eta zerbitzuen eta barne-prozesuen kalitatea neurtzeko (Trivellas & Dargenidou, 2009).
2009	Malaysian egindako azterlana, erakunde-kulturak lidergo-jokabideen eta erakundearekiko konpromisoaren arteko harremanetan dituen ondorio moderatzaileak ikertzeko, baita erakunde-konpromisoaren eta laneko gogobetetasunaren eta errendimenduaren arteko harremanetan dituen ondorioak ere, dena Malaysiako ingurunean (Yiing & Ahmad, 2009).
2010	Txilen egindako ikerketa-lana, zehazteko ea lidergo-estiloek eraginik duten ala ez erakunde-kulturan eta jakiteko ea erakunde-kulturak eraginik duen erakundearen jardueran. Enpresa txiki eta ertainetako goi-mailako 68 exekutiboren lagina erabili zen (Rodríguez, 2010).
2010	Antolaketa-kulturaren, kontratu psikologikoaren eta laneko gogobetetasunaren arteko korrelazioa aztertzea bideratutako azterlana, enpresaburuen eta enplegatuen arteko kooperazioaren testuinguruan, ingurune sozial eta ekonomiko berri batean. San Petersburgoko eta Moskuko hamahiru enpresatan egin zen (Zavyalova & Kucherov, 2010).
2011	OCI tresnan oinarrituta, ikerketa-lan honen helburua da aztertzea nola aplikatu ahal den baliabideetan oinarritutako ikuspegia enpresa-estrategiako eredu orokorren testuinguruan (Klein, 2011).
2011	Australian egindako azterlana, lehia-balioen esparruko lau kultura-dimentsioen (CVF) eta lau errendimendu-moten arteko lotura aztertzeko: produktuaren kalitatea, prozesuaren kalitatea, produktuaren berrikuntza eta prozesuaren berrikuntza (Prajogo & McDermott, 2011).

---



2014	Pakistanen egindako azterlana, antolaketa-kulturak –zuzeneko edo zeharkako– enplegatuen lan-errendimenduan duen eragin orokorra aztertzeke (Shahzad, 2014).
2015	Indian egindako lan honen helburua da aztertzea zer harreman dagoen erakundearen kulturaren eta enplegatuen motibazioaren artean. Hau zen hipotesia: antolaketa-kulturaren eragina ez da asko aldatzen erakundeetan bertan lan egiten duten enplegatuen arabera, eta, motibazioa hobetzeko, enplegatuei eragiten dien antolaketa-kulturaren aldagaia garatzen ahalegintzen da (Parthasarathy & Ramalingam, 2015).
2015	Japoniako 109 enpresaren –NIKKEIren ingurumen-kudeaketaren sailkapen- inkestatik aterata– puntuazioen eta enpresa bakoitzaren kultura korporatiboaren artean dauden loturak ikertzen dituen azterlana (Sugita & Takahashi, 2015).
2016	Azterlan enpiriko honek Txinako enpresak gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloko jardunbideak hartzea eramaten dituzten faktoreak aztertzen ditu. Interes-taldeen teoriari jarraikiz, azterlan honen hipotesia da interes-taldeen presioek eragin positiboa dutela Txinako enpresek EGE jardunbideak har ditzaten (Yu & Choi, 2016).
2017	Txinan egindako lan honen helburua da azterlan enpiriko bat egitea Erabateko Kalitatearen Kudeaketaren (TQM) antolaketa-kultura ikertzeke, enpresa-bikaintasuna lortzeke, kultura hori sustatzen duten enpresetan (Chen et al., 2017).
2018	Berrikuntzaren aurrekariaren eta lehiarako abantaila gisa duen inpaktuaren azterketa ardatz duen lana. Grezian egin zen (Chatzoglou & Chatzoudes, 2018).
2018	Azterlan enpirikoa, antolaketa-kulturak ingurumen-errendimenduan duen inpaktua aztertzeke. Horretarako, eredu teoriko bat aplikatu zen Pakistango manufaktura-industrian. Eredu horrek ingurumenaren arloko jardura hobetzeko ingurumen-jardunbideak babesten dituen antolaketa-kultura hartzen du aintzat (Magsi et al., 2018).
2019	Portugalgo ehungintza-industrian egindako lana, aztertzeke zer eragin duen kalitateko kulturak erakundearen errendimenduan (Araújo et al., 2019).
2019	Kroazian egindako azterlana, kapital intelektualaren hiru osagaien (gizakiena, egiturarena eta harremanena) eta antolaketa-giroarekin eta berrikuntzaren kulturarekin lotutako testuinguruko faktoreen arteko loturaren analisia ardatz duena, baita enpresaren errendimenduaren gainean duen eraginarena ere (Dabić et al., 2019).
2019	Serbian egindako azterlana, ezagutzak sortzeke eta partekatzeko, erakundeak aurretiaz izan behar dituen baldintzak ikertzeke, egitura organikoaren ezaugarriek ezagutzak sortzen eta trukatzeko laguntzen duten eta zer neurritan laguntzen duten aztertuta (Stojanović-Aleksić et al., 2019).
2020	Lan zientifikoa, enpirikoki egiaztatzen duena antolaketa-egiturak, enplegatuen ezagutzak, jarrerak eta sariek erakundeetan berrikuntza ezartzeko aurrekari eta

---

	bitartekari gisa duten inpaktua, analisi kuantitatiboaren bidez, zeinaren oinarria baita 28 industria-sektoretako 528 enplegaturi egindako inkesta bat (Alassaf et al., 2020).
2021	Gatazkak, lidergoak, antolaketa-kulturak eta laneko etikak laneko errendimenduan duen eragina aztertzen duen azterlan, Indonesian egindakoa (Ferine et al., 2021).
2022	Azterlan honek berrikuntzak antolaketa-kulturaren eta antolaketa-errendimenduen dimentsioen arteko loturan duen bitartekari-lana aztertzen du, Pakistango bankuetako 250 zuzendariri egindako galdetegi baten bidez (Imran et al., 2022).

---

2. taula. EKren neurketari/ebaluazioari buruzko azterlan enpirikoak

## 2.5. SINTESIA

Erakunde bakoitzak bere EK du, osatzen duten pertsonengan balioak, jokabide-kodeak eta portaera jakin batzuk sortuta eta zuzenean eraginda bere ekintzen eraginkortasunean eta jardueran. Horrenbestez, HPO bihurtuta ekintzen eraginkortasuna hobetzeko, eraldatu egin behar dira erakundeko balioak, jokabide-kodeak eta portaerak, EKren kudeaketaren bidez. Laburbildura, erakunde guztiek dute EK perfektua lortzen dituen emaitzak lortzeko; beraz, beste emaitza batzuk lortu nahi badira, egokitu egin beharko da EK.

Aldi berean, komunitate zientifikoak adierazi du EKren kudeaketarekin lotutako azterlan enpirikoek ikuspegi bera dutela, hau da, teoria edo hipotesiren bat aztertzea hainbat tresna erabilia. Ez dago azterlan bat ere ez EKren eraldaketa bera ardatz duena, hau da, azterlan bakar batean ere ez da egin ingurune erreal batean aplikatutako kulturaren eraldaketa bat. Hortaz, egiaztatu da balio erantsi handia izango lukeela EKraiko ezarritako prozesu enpiriko eta sistematiko batek.

Erreferentzia-esparru horretan du garrantzia «Goi-errendimenduko erakundeak: Erakunde-kultura eraldatzeko eredu baten diseinua, inplementazioa eta baliozkotzea, operazio-bikaintasunaren bila» ikerketa-lan honek, eta handitu egin du zientziaren corpusa EKren eremuan.



# **3 HELBURUAK ETA METODOLOGIA**

---



# 3 HELBURUAK ETA METODOLOGIA

---

**A**partatu honetan doktore-tesiaren helburua eta helburu hori lortzeko baliatutako prozesu metodologikoa definitzen dira.

## 3.1. IKERKETAREN HELBURUA


Aurreko apartatuan azaldutako aurrekari teorikoetan kokatuta eta, bizirik irauteko aukera bakar gisa egiturazko aldaketak egiteko beharra betetzeko, ikerketa honen helburu nagusia da **erakunde-kultura eraldatzeko eredu bat (EKEE) diseinatu, ezarri eta baliozkotzea, Bizkaian dagoen industria-enpresa batean operazio-bikaintasuna lortzeko.**

Aurkikuntzek ideia eta aukera berriak eskainiko dituzte, goi-errendimenduko erakunde-ingurune berria sortzeko eta HPO bihurtzeko, beren EK erabat eraldatu nahi duten enpresentzat.

Helburu hori lortzeko, EKren azterketa-eremuan sakondu behar izan da, ulertuta erakundeen ezaugarri bat dela bikaintasunaren bilaketan eta horretan eragiten duten elementuetan. Horrez gainera, zehatz ulertu behar izan da HPO kontzeptuaren esanahia, definiziotik hasi eta zehazten duten KPI adierazleetaraino.

## 3.2. METODOLOGIA

Azterlanaren helburu nagusia lortzeko erabilitako metodologian, hainbat etapa garatu behar izan dira, bakoitza bere helburuekin, zeinak 8. irudian jaso baitira.



8. irudia. Ikerketa-lanean erabilitako laneko fluxu-diagrama

Hurrengo apartatuetan etapa bakoitzean egindako ekintzak zehazten dira.

### 3.2.1. EKEEren prototipoaren diseinua

Lehen etaparen ardatza EKEEren prototipoa definitzea izan da. Horretarako, erakundeak HPO bihurtzeko eraldaketarekin lotura estua duten jakintza-arlo ezberdinetan esperientzia ospetsua

eta egiaztatua duten zenbait adituren laguntza jaso da. Hala, azterlana egin den industria-enpresan, zazpi kideko talde bat osatu da: arloko hiru langile aditu, lana egin den industria-enpresakoak direnak, eta lau aholkulari independente.

Enpresako adituei dagokienez, guztiak izan dira zuzendaritza-taldeko kideak eta ondo ezagutzen dituzte prozesuen bidezko kudeaketa, industria-ingurune konplexuetako lidergoa eta erakunde-eraginkortasunaren optimizazioa. Batez beste, 25 urte bete dituzte industria-instalazioak zuzentzen VUCA inguruneetan.

Kanpoko aholkulariei dagokienez, nabarmentzekoa da laurak direla espezialista ospetsuak eta esperientzia zabala dutela erakundeen aldaketa eta eraldaketa kudeatzen enpresek HPO kontzepturako bidea egitea errazten duten ekimenen ezarpenaren bidez.

Aholkulari hauek ikerketarako aukeratzeko arrazoia da, operazio-bikaintasunean erreferente izateaz gainera, lan egiten duten aholkularitza-enpresek erakunde-eraldaketarekin zuzeneko lotura duten arloetan eragiten duen eredu propio bat dutela. Eredu horiek azterlanaren xede den industria-enpresaren eskuetan jarri dira, eta fusionatzeko aukera eman da; hala, enpresaren premiak beteko dituen eredu pertsonalizatua diseinatu ahal izan da.

Zehazki, aholkularitza-enpresetako bat espezializatuta dago lantaldeetan komunikazio-eremu irekiak sortzen, non taldeetako kideek dituzten interakzio-ahalezia guztiak garatzen baitituzte erakunde-aldaketak sustatzeko eta jasangarri bihurtzeko. Horretarako, aholkularitza horrek eredu propio bat du, lidergoari aplikatutako neuroikaskuntzako eta neurosorkuntzako metodologian oinarritutakoa, aldaketaren kudeaketaren alderdi "biguna"<sup>3</sup> ardatz duena.

Bigarren aholkularitza-enpresa ezaguna da tresnetan eta sistemetan oinarritutako eredu propioagatik, zeinak erakunde-aldaketak egiteko aukera ematen baitie enpresei. Bestek ez bezala, eredu honek aldaketaren kudeaketaren alderdi "gogorrari" eragiten dio, eta zerbitzurako lidergoaren ingurune bat sortzen du eta pertsonen etengabeko garapena sustatzen da etengabeko hobekuntzaren bideratzaile izan daitezen.

Adituak aukeratu eta lantaldea osatu ondoren, lehen fasean, aholkulari bakoitzak bere eredu azaldu zuen, eta, gero, barneko adituek gidatutako lan-saio batzuetan, EKEEren prototipoa definitu zen. Azkenik, benetako fabrikazio-ingurune batean probatu zen.

<sup>3</sup> Aldaketaren kudeaketari dagokionez, "bigun" esaten zaio emozioetan oinarritutako kudeaketari, eta "gogor", berriz, plangintzan, egituren ezarpenean eta errendimenduaren ikuskapenean oinarritutako kudeaketari (Zukof, 2021).

### 3.2.2. EKEEren prototipoaren implementazioa

Prototiporako programatutako zabalkuntza lau urtean garatu da, 2017tik 2020ra, eta, tarte horretan, batetik, ereduaren prototipoa implementatu da, eta, bestetik, behar besteko denboraz izan da funtzionatzen, bermatzeko nahiko helduta dagoela ondorio sendoak ateratzeko. Prozesu osoan zehar, eredu instalazioko KPI nagusien bidez monitorizatu da.

4. irudian ikus daitekeenez, lau urteko epe horretan, hedapen-fasea hiru alditan banatu da. Ondoren zehazten dira aldi horiek.

#### 3.2.2.1 1. aldia - Hasierako prestatze-lanak

EK aldatzea bidaia neketsua da, epe luzerakoa, eta, arrakasta izateko, ezinbestekoa da zuzendaritza-taldeak konpromiso irmoa izatea aldaketaren munta eta izaera ulertzeko (Levin & Gottlieb, 2009; Reiman & Oedewald, 2002). Horretarako, lehen aldi honen ardatza izan zen enpresako zuzendaritza-taldea erakundeko lider diren heinean egin behar zuten ibilbideaz kontzientziatzea. Eraldaketarako bidaia errazten duten tresnak prestatu ziren, bidaiari zehar KPI nagusietan espero zen bilakaera definitu zen eta prozesuan zehar beharko ziren gaikuntzaren arloko injekzio-premiei buruzko hasierako diagnostikoa egin zen.

Lehen aldi hau osatu ondoren, zuzendaritza-taldeak ekingo zion eraldaketarako bidaiari jabetu zen eta aldaketaren eragile nagusi gisa haiengandik espero zena ulertu zuten.

Lehen aldi hau amaitzeko eta hurrengoari ekin ahal izateko, ekitaldi bat antolatu zen erakunde osoari egingo zen aldaketa handiaren berri emateko eta zuzendaritza-taldeak hartutako erabateko konpromisoa nabarmentzeko. Ekitaldi horren helburua zen erakundeko pertsona guztiak motibatzea, estimulatzea eta inspiratzea, eta, horretarako, funtsezkoa zen eraldaketarako bidaia horrek zekarren erronkarekin bat zetorren komunikazioa (Gochhayat et al., 2017).

#### 3.2.2.2 2. aldia - Martxan jartzea

Bigarren aldiaren ardatza izan da prototipoaren zabalkuntza. Une honetan, instalazioa prest dago, eta, prestatzeko lehen aldiaren ondoren, argi du zeri egin behar dion aurre. Bigarren aldi honen ezaugarria da azpiegitura osoaren oinarria eratzeko esfortzua, bai denborari dagokionez, bai ekarri duen lan-zamari dagokionez.

Bigarren aldi honen amaieran, ekoizpen-lerro osoa prest zegoen modu autonomoan lan egiteko, eta hirugarren eta azken aldirako bidea zabaltzeko.



### 3.2.2.3 3. aldia - Funtzionamendu autonomoa

Inplementazio-fasearen azken aldian, aurreko bi aldietan zabalduak diren tresnak fusionatu eta EKn eragiten hasten dira. Hirugarren aldiaren amaieran, esan daiteke prototipoa erabat zabaldua zegoela. Baina EKren eraldaketa epe luzean bidaia bat da, eta, beraz, etengabeko diagnostikoa behar da, aldizka ebaluatzeko nola eboluzionatzen ari den eta, beharrezkoa izanez gero, neurriak hartzeko.

Lehenago azalduenez, tresna kuantitatibo ugari daude EK ebaluatzeko. Hala ere, moldagarritasuna hobetzeko, adituek inkesta pertsonalizatu bat diseinatu dute eredurako. Implementazio-fase honetan, inkesta hori urtero egin da, eta, horri esker, instalazioko zuzendaritza-taldeak ereduak EKn izandako inpaktuaren ikuspegi argia izan du.

### 3.2.3. EKEEren prototipoaren baliozkotzea

Aurreko apartatuan azalduenez, operazio-bikaintasuna lortzeko EKEE bat diseinatu eta ezartzeaz gainera, ikerketaren helburua da ereduaren baliozkotzea, eraginkorra dela bermatzeko. EKEEren prototipoaren baliozkotze hori ondoren adierazitako eran egin da, hiru ikuspegi baliatuta.

#### 3.2.3.1 Baliozkotze zientifikoa

Lehenago azalduenez, EKEEren prototipoa definitzeko, erakundearen eraldaketarekin eta HPO kontzeptuarekin lotura estua duten jakintza-arlo askotan esperientzia zabala duten adituen laguntza jaso da.

Baliozkotze zientifikoaren xedea da, hain zuzen ere, adituek bere esperientzia zabalean oinarrituta planteatutako ereduaren prototipoak kontuan hartzen dituen kontzeptuak komunitate zientifikoak arlo honetan urteetan zehar planteatutakoarekin bat datozeela egiaztatzea.

Horretarako adituek EKEEren prototiporako proposatutako elementu nagusiak eta komunitate zientifikoaren arabera EKren azterlan-eremuan kontuan hartu behar diren gako-kontzeptuak alderatu dira. Gako-kontzeptu horiek lortutako lanetako *authors' keywords* direlakoetatik eta lan garrantzitsuen azterketatik atera dira.

3. taulak Scopus datu-basera egokitutako kontsulta erakusten du. Datu-base hori aukeratu da bilaketa bibliografikorako, azterlan batzuek erakutsi baitute dokumentazio zientifikoaren bilatzaile onenetakoa dela eta datu-base handienetako bat dela (Alvarez-Meaza et al., 2020).

---

## Kontsulta

---

AUTHKEY ("organi?ation\* cultur\*") AND (LIMIT-TO (SUBJAREA,"BUSI") OR LIMIT-TO (SUBJAREA, "SOCI") OR LIMIT-TO (SUBJAREA, "DECI") OR LIMIT-TO (SUBJAREA, "ECON"))

---

### 3. taula. Aukeratutako datu-basera egokitutako kontsulta

3. taulan ikus daitekeenez, bilaketarako ondorioztatu da "Erakunde-kultura" kontzeptuak, bere aldagai terminologiko guztietan, ikerketaren eskakizunak betetzen dituela, eta, hala, gaiari buruzko azterketa-eremua osorik jaso da.

Horrez gainera, autoreen gako-hitzetan (*Authors' Keywords*) zentratu da, eta jakintza-arlo hauetara mugatu da: "Business, Management and Accounting", "Social Science", "Engineering", "Decision Sciences" eta "Economics, Econometrics and Finance". Baliozkotzearen xedearekin lotura estuagoa duten jakintza-arloak direla uste da.

Bilaketaren emaitzak VantagePoint datu-meatzaritzako softwarea inportatu dira, eremuak garbitzeko eta deskarga estatistikoki aztertzeko (VantagePoint, 2019).

Azkenik, analisia errazteko, sareen analisiaren teoria aplikatu da ezagutzaren egitura ulertzeko aukera ematen duten bistaratzeak egiteko, autoreen gako-hitzen (*Authors' Keywords*) aldi bereko agerraldien azterketaren bidez. Horretarako, Gephi softwarea erabili da, zeinak tamaina ezberdineko sareak bistaratzeko eta sarearen metrikak neurtzeko aukera ematen baitu (Bastian et al., 2009).

Bistaratzeko zientifikoaren prozesu hau amaitu ondoren, emaitza izan da komunitate zientifikoaren arabera EKren gako-kontzeptuak direnen definizio argia, eta, horri esker, egiaztatu ahal izan da ea bat datozen adituek EKEEren prototipoan definitutako laneko elementu nagusiekin.

Aurrekoaren osagarri, ikerketa indartzeko, edukiaren analisia egin da, aztertutako kasuarekin lotutako dokumentu garrantzitsuenak berrikusita. Berrikusteko dokumentuak haien inpaktuaren arabera aukeratu dira, eta inpaktu hori aipamen-kopuruaren arabera neurtu da. EKren arloko azken joerak bitzeko eta denborazkotasunaren inpaktu murrizteko, inpaktu handieneko dokumentuen analisia 2015etik 2020ra bitarteko aldira mugatu da.

#### 3.2.3.2 Baliozkotze operatiboa

EKEEren eredia EKn eragiteko sortu da, instalazioaren KPI edo negozio-emaitzak hobetu daitezkeen, hala haren bideragarritasuna bermatzeko neurri batean. Horregatik, prototipoaren baliozkotze operatiboa hauen arteko diferentzia neurtuta egin da:

- ✓ Prototipoa ezarri baino lehenagoko (2017. urtearen amaiera) eta ondorengo (2020. urtearen amaiera) KPIetan lortutako bariazioa.
- ✓ KPI bakoitzean esperotako inpaktua, zeina adituek definitu baitute enpresaren industria-ingurunekeo enpresa eraginkorrenek KPI horietan lortutako emaitzen arabera.

Jarraian, monitorizatzeko aukeratutako KPIak deskribatzen dira. Instalazioko zuzendaritza-taldeak definitu dira, epe laburrera instalazioari behar duen fidagarritasuna emango diotenak direla uste baita:

- ✓ Egiturazko aurrezki garbiak: Murriztutako egiturazko kostuen ehunekoa. EKEEren prototipoaren ezarpenari egotzi ahal zaizkion kostuak baino ez. Ereduaren inplementazioa ez den beste edozein bidetatik (inbertsioak, automatizazioa...) lortutako kostu-murrizketak ez dira aintzat hartu KPI honetarako.
- ✓ Instalazioko Overall Equipment Efficiency (OEE): Instalazioko makinak benetan produktiboak diren denboraren ehunekoa.
- ✓ Segurtasun-ratioa: Segurtasun-indizean izandako murrizketa-ehunekoa. Instalazioan segurtasunaren arloan izandako gorabeherak kontuan hartuta kalkulatu da.
- ✓ Kalitate-ratioa: Kalitate-indizearen murrizketa-ehunekoa, ekoizpen-katean zehar atzera botatutako materialean oinarritutakoa, nahiz eta material hori berriro prozesatu eta berriro erabili.

Instalazioaren epe luzerako fidagarritasuna bermatzeko erabakigarritzat jotzen diren lau KPI horiez gainera, instalazioaren epe luzerako bideragarritasuna bermatzeko, zuzendaritza-taldeak monitorizatzeko KPI osagarritzat jo du EKren inkestan lortutako balioa:

- ✓ EKren inkesta: EKren inkestan 4 (ados) edo 5 puntu (erabat ados) lortu dituzten galderen ehunekoa.

Baliozkotze operatiboaren fase honetan, zuzendaritza-taldeak definitutako KPIetan ereduak izandako benetako inpaktua neurtzeaz gainera, sakon aztertu dira EKren inkestaren emaitzak, EKEEren prototipoari buruzko irakaspen eta ondorio osagarriak lortzeko.

### 3.2.3.3 *Baliozkotze funtzionala*

EKEEren prototipoaren baliozkotze funtzionalaren helburua da haren barne-funtzionaltasun zuzena berrestea. Horretarako, EKEEren prototipoaren barne-elementuek HPO lortzeko

izandako eragina aztertu da, 2021ean egindako EKren inkestaren emaitzekin egindako analisi estatistikoaren bidez.

Azterlanean parte-hartzea borondatezkoa eta anonimoa izan zen, eta makinetako langileetan zentratu zen. 2021ean, guztira, 476 langile ziren, eta 467k erantzun zuten (% 98,11ko parte-hartzea).

4. taulak 467 partaideen ezaugarri soziodemografikoak erakusten ditu.

	# (%)
<b>Generoa</b>	
Emakumea	23 (% 5)
Gizona	444 (% 95)
<b>Ekoizpen-saila</b>	
A ekoizpen-saila	71 (% 15,2)
B ekoizpen-saila	84 (% 18,0)
C ekoizpen-saila	77 (% 16,5)
D ekoizpen-saila	151 (% 32,3)
E ekoizpen-saila	37 (% 7,9)
F ekoizpen-saila	47 (% 10,1)
<b>Adina</b>	
< 21 urte	3 (% 0,5)
21-30 urte	24 (% 5,3)
31-40 urte	78 (% 16,8)
41-50 urte	255 (% 54,5)
51-55 urte	77 (% 16,6)
56-60 urte	24 (% 5,1)
60 urtetik gora	6 (% 1,2)
<b>Antzinasuna</b>	
0- 1 urte	42 (% 8,9)
2-5 urte	49 (% 10,4)
6-10 urte	38 (% 8,2)
11-20 urte	125 (% 26,4)
21-30 urte	195 (% 41,7)
30 urtetik gora	18 (% 3,9)
<b>Kontratu-mota</b>	
Iraunkorra	383 (% 82)
Aldi baterakoa	84 (% 18)

Oharrak: N=467

4. taula. Baliozkotze funtzionalerako laginaren ezaugarri soziodemografikoak

Oro har, ezaugarri soziodemografikoek (aztertutako partaideen batez besteko adina, 44,5; gutxienekoa, 19 urte; gehienekoa, 61; desbideratze estandarra, 7,76; bariazio-koefizientea, % 17,43; batez besteko antzinasuna enpresan, 16,7 urte; gutxienekoa, 0,1; gehienekoa, 36,2; desbideratze estandarra, 9,68; bariazio-koefizientea, % 57,84) erakusten dute azterlanak ondo sendotutako partaide-talde bat duela, eta inguruabar horrek sendotasuna ematen dio

ikerketari, esan nahi baitu erantzunak operazio-ingurunearen ezagutza sakonean oinarritzen direla.

Parte-hartzea sustatzeko, galdetegia tokiko bi hizkuntzetan egin da (euskaraz eta gaztelaniaz), baita digitalki ere, plataforma publiko eta irekien bidez (sakelako telefono pertsonalak, PDAk eta instalazioan dauden terminal digitalak). Beti bermatu da anonimotasuna. Aurretiaz, aurkezpen labur bat eman zitzaion partaide bakoitzari, inkestaren helburua eta garrantzia azaltzeko.

#### 3.2.4. EKEE-ren azken bertsioaren definizioa

Inplementazio-fasean eta geroko baliozkotze zientifikoarekin, operatiboarekin eta funtzionalarekin ikasitakoa baliatuta, fase honetan aplikatu beharreko EKEE birdefinitu da.





## **4 EKOIZPEN-INSTALAZIOAREN**

**DESKRIPZIOA**

---





# 4 EKOIZPEN-INSTALAZIOAREN DESKRIPZIOA

---


**A**partatu honetan azterlana egin den ekoizpen-instalazioaren berezitasunak deskribatzen dira.

Ikerketa-lana Bizkaian dagoen fabrikazio-instalazio batean egin da. Automobilgintza-merkaturako produktuak baino ez ditu ekoizten. Aurrekari historiko berrienen ikuspegitik, 9. irudiak instalazioaren mugarri garrantzitsuenak islatzen ditu.

Esklusiboki fabrikazio industrialean diharduen instalazioa den heinean, haren jarduera nagusia da lehengai eraldatzea eta azken produktua sortzea, eta, horretarako, ekoizpen-katea sei prozesu nagusitan banatuta dago. Prozesu horiek bata bestearen atzetik burutzen dira, azken produktua lortu arte.

10. irudiak ekoizpen-prozesuen multzoa erakusten du, baita prozesu bakoitza zehaztea ahalbidetzen duten datu adierazgarriak ere (2021):

- ✓ Langile-kopurua
- ✓ OEE
- ✓ Makina-kopurua
- ✓ Makina horien konplexutasun-maila, haien teknologia oinarritzat hartuta (handia/ertaina/txikia)



9. irudia. Azterlana egin den instalazioaren mugarri garrantzitsuenak (tesiarene egilearena)


## LEHENGAIAREN BILTEGIA

	<p><b>1. Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Plantilla:</i> 69</li> <li>▪ <i>OEE:</i> % 68,8</li> <li>▪ <i>Makina-kopurua:</i> 9</li> <li>▪ <i>Konplexutasuna:</i> ERTAINA</li> </ul>
	<p><b>2. Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Plantilla:</i> 84</li> <li>▪ <i>OEE:</i> % 61,3</li> <li>▪ <i>Makina-kopurua:</i> 6</li> <li>▪ <i>Konplexutasuna:</i> TXIKIA</li> </ul>
	<p><b>3. Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Plantilla:</i> 90</li> <li>▪ <i>OEE:</i> % 66,4</li> <li>▪ <i>Makina-kopurua:</i> 9</li> <li>▪ <i>Konplexutasuna:</i> TXIKIA</li> </ul>
	<p><b>4. Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Plantilla:</i> 144</li> <li>▪ <i>OEE:</i> % 51,4</li> <li>▪ <i>Makina-kopurua:</i> 19</li> <li>▪ <i>Konplexutasuna:</i> HANDIA</li> </ul>
	<p><b>5. Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Plantilla:</i> 40</li> <li>▪ <i>OEE:</i> % 85,4</li> <li>▪ <i>Makina-kopurua:</i> 3</li> <li>▪ <i>Konplexutasuna:</i> ERTAINA</li> </ul>
	<p><b>6. Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Plantilla:</i> 49</li> <li>▪ <i>OEE:</i> % 90,1</li> <li>▪ <i>Makina-kopurua:</i> 3</li> <li>▪ <i>Konplexutasuna:</i> TXIKIA</li> </ul>

## PRODUKTU BUKATUAREN BILTEGIA

10. irudia. Azterlana egin den konpainiaren ekoizpen-prozesua (tesiarene egilearena)

10. irudian ikus daitekeenez, ekoizpen-katean, zuzeneko langileen taldea osatzen duten 476 pertsona ari dira lanean. Instalazioko zuzeneko eta zeharkako langileen arteko ratioa % 65-% 35 da; hortaz, beste 256 pertsona ari dira lanean laguntza-eginkizunak betetzen, hala nola mantentze-lanak, kalitatea bermatzeko lanak, zerbitzu teknikoa, ingeniaritza, giza baliabideak, ingurumena eta segurtasuna. 11. irudiak instalazioko organigrama du, eta arlo bakoitzak dagoen plantilla.



Saila	Ingeniaritza	Kalitate-bermatzea	Ekoizpena	Plangintza & Industria-ingeniaritza	Segurtasuna & Ingurumena	Bestelakoak
Plantilla	10	24	Guztira=678 Zuzenekoak=476 Zeharkakoak=48 Mantentze-lanak=154	12	5	3

11. irudia. Azterlana egin den instalazioaren organigrama

EKEEren eredia ezarri den ekoizpen-instalazioaren laburpen gisa, erakutsitako balioek agerian uzten dute ikerketa bere ingurunean oso errotuta dagoen industria-eremu batean gauzatu dela, eta inguru operatiboa oso ondo ezagutzen duten pertsonak osatzen dutela. Inguruabar horrek sendotasuna ematen dio ikerketa-lanari, ingurune egokia baita esperimentaziorako eta planteatutako helburuarekin bat datozen ondorioak ateratzeko.



## **5** EMAITZAK ETA EZTABAIDA

---



# 5 EMAITZAK ETA EZTABAIDA

---

**A**partatu honetan, ikerketa-lan honen emaitza nagusiak deskribatzen dira. Azalpenean, industriaren arloko doktore-tesi honen 3. apartatuan erabilitako egitura bera baliatu da (ikusi 8. irudia).

Lehenik eta behin, diseinatutako EKEEren prototipoa aurkezten da, barne-osagai bakoitza zehatz azalduta. Jarraian, prototipoa inplementatzeko jarraitutako prozesua erakusten da, eta, ondoren, egindako hiru baliozkotzeen (zientifikoa, operatiboa eta funtzionala) emaitzak azaltzen dira, prototipoaren balioa egiaztatzeko eta prototipoa bera hobeto ezagutzeko. Azkenik, behin betiko eredu aurkezten da, eta, beraz, ikerketa-lanaren helburu nagusia betetzen da.

## 5.1. EKEE-REN PROTOTIPOAREN DISEINUA

Adituak aukeratu eta lantaldea osatu ondoren, EKEEren prototipoaren definizioa ekarri zuen lantaldinamika bat gauzatu zen.


Lan-saioetan zehar, kanpoko aholkulariek beren ereduak azaldu zituzten, eta, ondoren, ekoizpen-instalazioko adituek gidatuta, EKEE-ren prototipoa definitu zen. 12. irudiak EKEEren prototipo hori erakusten du.

Lehen begiratuan, proposatutako prototipoa geruza askoko eraketagatik nabarmentzen da. Eraketa horretan, hainbat maila daude, bakoitza elementu ugarirekin, eta guztiak biltzen dira kontzeptu nagusiaren edo nukleoaren inguruan: HPO

Jarraian, prototipoaren geruza bakoitza eta haietako bakoitzaren elementuak azalduko dira.








14. irudia. Diseinu-elementuen geruza

### 5.1.3. EKEEren exekuzio-elementuak

Jarraian, diseinu-elementuek osatutako lehen geruzaren gainean, exekuzio-elementuen geruza dago, zeinak nahierara landu ahal diren lehen elementuak baititu (ikus 15. irudia). Geruza horretan izango dute inpaktua tresna ezberdinek erakundeari dagokionez, efektua erdiko nukleora edo HPORA iritsi dadin, lidergoaren, kidezaren eta inplikazioaren bidez.

15. irudian ikus daitekeenez, bederatzi exekuzio-elementu definitu dira: komunikazio gardena, aldetaren kudeaketa, zerbitzurako lidergoa, ikuspegi bateratua, sariak eta aitortpenak, etengabeko hobekuntza, ebaluazioa eta eraberritzea, ekipoen garapena eta garapen indibiduala.




15. irudia. Exekuzio-elementuen geruza

#### 5.1.4. EKEEren lanabesak

Hirugarren eta azken geruza lanabesena da (ikusi 16. irudia). Lanabes horien aplikazio sistematikoaren bidez EKren eraldaketa bideratzen da, bederatzi exekuzio-elementuetako bakoitzaren bitartez, nukleora edo HPOra iritsi arte.


Lanabes bakoitzari harreman nagusi bat esleitzen zaio exekuzio-elementu espezifiko bati dagokionez. Hala ere, nabarmendu behar da planteatutako EKEEren prototipoa eredu integral bat dela, eta, beraz, osatzen duten elementuak ezin dira hartu lanerako multzo isolatutzat.



16. irudia. Lanabesen geruza

Eredu integrala denez, lanabes guztiak elkarren artean lotuta daude eta haietako batean egindako edozein aldaketak, txikia izanda ere, eragina izango du exekuzio-elementu guztietan, eta, ondorioz, erdiko nukleoan. Horregatik, EK neurtzeko tresna bat behar da, eraldaketarako bidearen etengabeko diagnostikoa egiteko, eta, hala, edozein gorabeheraren aurrean erreakzionatu ahal izateko.

Nabarmendu behar da honela definituta geratu dela lanerako elementuetako azkena: EKren inkesta (ikusi 17. irudia).



17. irudia. EKren inkesta

Jarraian, hamabi lanabesak zehazten diren, banan-banan, tresna bera ulertzeko, baita haren aplikagarritasuna eta espero diren helburuak ere. Hala ere, gogoratu behar da lanabes horien helburua, hau da, bederatzi exekuzio-elementuetan eragitea, hiru diseinu-elementuak zabaltzeko, eta, hala, erakundeak HPOrako bidea egitea lortzea.

#### 5.1.4.1 *Komunikazio-matrizea*

EKEEren ereduak eraldaketa sakona lortu nahi du, eta, horregatik, ulertu beharko da erakundeak erronka eta aldaketa handiak izango dituela nahitaez, eta ezinbestekoa izango dela erakundeak kide guztiei etengabe informazioa ematea bidaiari buruz, lorpenei buruz eta lortutako mugarriei buruz (Asamu, 2014).

Komunikazio gardenaren helburua da aldaketarekiko erresistentzia saihestea, eta, horretarako, zuzendaritza-taldeak definitu behar du zer, non, nola, noiz eta nori komunikatuko zaion, komunikazio-matrize baten bidez (ikus 1. eranskina). Horri ezker, mezu bakar eta bateratua lortuko da, eta aldaketaren inguruan sor daitekeen zalaparta eragotziko da (Elving, 2005).

Gainera, nabarmendu behar da, komunikazioan eraginkortasuna hobetzeko, plataforma digitalek aukera ugari eskaintzen dituztela gaur egun.

#### 5.1.4.2 Nahasitako alderdiak motibatzeke plana

Eraldaketarako bidaia arrakastatsua izan dadin, aldaketaren kudeaketaren barruan eta beste urrats bat eman baino lehen, alderdi interesdunak motibatzeke plan bat diseinatu behar da (Al Mehrzi & Singh, 2016).


Alderdi interesdunak funtsezko figurak dira balio-katean dauden guztien artean (hornitzaileetatik bezeroetara), eta, haien garrantziagatik, arreta berezia behar dute eta monitorizatu egin behar dira, haien premietara, galderetara, beldurretara, trabetara eta sinesmen mugatzaileetara ahalik eta ondoen egokitzeko, aldaketaren kudeaketa sustatzeko horrela.

Elisabeth Kübler-Ross psikiatra eta idazle suitzar-estatubatuarrak 60 hamarkadan garatutako eredu batean –dolu-prozesua azaltzeko– oinarrituta, aldaketaren kurba asko erabili da aldaketa esanguratsuen aurreko erantzunak monitorizatzeke (Holland, 2014) eta tresna egokitzat jo da motibazio-planaren definizioan erabiltzeko (ikusi 18. irudia).

Aldaketaren kurbaren arabera, edozein aldaketa-prozesuk lau fase ditu: ukapena, erresistentzia, esplorazioa eta integrazioa. Gizakiak aldaketaren eraginpean egongo dela dakienean, aldaketa hori edozelakoa izanda ere, lehenik eta behin, ukatu egingo du egoera, eta, gero, aldaketaren kontra egingo du, egoera onartu arte. Orduan, aukera berriak esploratzen hasiko da, azkenean errealitate berria integratu arte.

Horregatik, plana prestatzeko, lehenengo identifikatu behar da alderdi interesdun bakoitza zein etapatan dagoen (ikusi 2. eranskina), eta, ondoren, zuzendaritza-taldeak ibilbide pertsonalizatu bat prestatu behar du, alderdi interesdunei etapa batetik bestera pasatzen laguntzeko, integrazioaren azken etapara iritsi arte (ikusi 3. eranskina).

Azken finean, motibazio-planak alderdi bakoitza une horretan zein etapatan dagoen definituko du, ekiteko ibilbidea zehaztuko du eta etapa bakoitzerako arduradun bat izendatuko du. Ibilbide hori monitorizatu egin beharko da, bilakaera behatzeko eta behar diren ekintzak bideratzeko.



18. irudia. Aldaketaren kurba (Kübler-Ross, 1967)

#### 5.1.4.3 Coachinga makinan bertan

HPO kontzeptuak kidezta-maila handia eskatzen die erakundeko kide guztiei, eta, hala, inplikazio-maila handia lortzen da helburu orokorrak lortzeko, eta, horretarako, bat datorren norbanako bakoitzak behar dituen gaitasunen garapena ardatz duen lidergoa behar da, hau da, zerbitzurako lidergoa.

Ereduak funtziona dezan, erakundeko pertsona guztiek (% 100) garapen pertsonalerako plan bat izan behar dute, eta, bereziki, makinako langileek edo zuzeneko langileek, balioa eransteko zuzeneko eragina dutelako.

Hortaz, erakundeko lider guztiek galerak desagerrarazten dituen etengabeko hobekuntza ardatz duen coachingeko abileziak izan behar dituzte. Horrez gainera, abilezia horiek zuzeneko langileen lanpostuetan zabaldu behar dira, hau da, makinan bertan, eguneroko errutinan dituzten arazoei buruz galdetu behar zaie, eta konponbideak emateko ahalegina egin. Aldi berean, abilezia berriak landu behar dira, pertsonak aukera izan dezaten galerak etengabe hautemateko. Hala, inplikazio-maila handia sustatuko da.

Zerbitzurako lidergoa hedatzeko, funtsezkoak dira coachingeko abileziak, eta, beraz, beste tresna batzuekin bezala, lehenik eta behin, hasierako abilezien diagnostikoa behar da, eta, gabeziaren bat izanez gero, gaikuntza-lana egin behar da.

Coachingeko abileziak behar izateaz gainera, liderrek denbora egin behar dute makinan, abilezia horiek eraginkorki aplikatzeko. Hori dela eta, egunean, gutxienez, ordu biko coachinga ezarri behar da makinan bertan, erakunde osoan.

Denbora horretan, ez da bilerarik programatu behar, ez telefono-deirik egin, ez atsedenaldirik, ez kafea hartzeko etenik..., langileekin makinan bertan coachinga egiten duten liderrak baino ez.


#### *5.1.4.4 Ikuspegia*

Ezin da erakunde bateko kide izatearen sentimendua sortu ez badago konpromisoa hartzea dakarren Ikuspegi Bateraturik (Serenko & Bontis, 2016). Hortaz, zuzendaritza-taldeak etorkizuneko ikuspegi bat sortu behar du, negozio-premietan oinarrituta, ibilbide-orri gisa.

Ikuspegi hori erakundeko kide guztiek partekatu behar dute, pertsonen % 100 jabetu daitezzen talde gisa duten helburuaz, eta, ondorioz, Ikuspegi Bateratu horri banaka egin ahal zaion ekarpena aztertzen has daitezten.

Adibidez, langileen Ikuspegi Bateratuarekiko konpromisoa indartzeko modu on bat da Ikuspegi Bateratuaren irudiaren sorkuntzan nahastea. Langileek zenbait proposamen diseinatuko dituzte, eta instalazioko langile guztiek botoa emango dute Ikuspegi Bateratuaren irudia aukeratzeko. Ikuspegi Bateratua irudikatzen duen irudia aukeratu ondoren, ikuspegi horrekiko konpromisoa indartzen jarraitzeko, irudia fabrikazio-instalazioko leku guztietan ikusgai egotea lortu behar da, langile guztiek erakundearen ikuspegiari buruzko ideia argia izan dezaten.

Ikerketa-lana egin den fabrikazio-instalazioaren kasuan, instalazioko langileekin zenbait lan-saio egin ondoren eta azken bozketaren ondoren, 19. irudian dagoen Ikuspegi Bateratuaren irudia aukeratu zen.



19. irudia. Ikerketa-lana egin den instalazioaren Ikuspegi Bateratua

Ikus daitekeenez, instalazioaren estrategia irudikatzen duten oinarriko irudiek eta zifrek osatzen dute ikuspegia. Zifrak zuzendaritza-taldeak eman zituen, eta langileak arduratu ziren azken irudia garatzeaz. Funtsean, irudiak denbora-grafiko bat islatzen du, non zuzendaritza-taldearen estrategia azaltzen baita (“unit/egun” ekoiztako unitateen kopurua handitzea urterik urte, “€/unit.” unitateko kostua murrizteko). Irudiak fabrikarentzat oso pertsonalak eta bakanak diren mezuak ezkutatzeko (Bilboko baldosa oinarrian, segurtasun eta talde-lana irudikatze; Guggenheim museoaren silueta; loreontzi handi bat, «plantak» hazteko aukera izan dezan...).

#### 5.1.4.5 Estrategiaren hedapena

Ikuspegi Bateraturik gabe ez dago estrategiarik. Baina Ikuspegi Bateratua izateak ez du berez bermatzen strategiaren hedapen egokia dagoenik (Alharthi et al., 2017).



Ikuspegi Bateratua sortu ondoren, hurrengo urratsa da estrategia erakundean hedatzea, Ikuspegi Bateratuaren eta ekarpen indibidualen arteko lotura sortuta. Horretarako, zuzendaritza-taldetik hasi eta makinetako langileetarako, erakundeko estratu bakoitzak planak prestatu ditu (3 urterako, urte baterako eta 90 egunerako), non zehaztu baita bakoitzak zer ekarpen egingo dion estrategia orokorrari, ekarpen indibidual guztiak batuta, negozioaren premiak bete arte, etorkizunerako berme gisa (ikusi 4., 5. eta 6. eranskinak).

Aldi berean, erakunde guztia Ikuspegi Bateratuarekin lerrokatzeaz gainera, estrategia behar bezala hedatu ondoren, erakundeko kide bakoitzak bere ekarpen pertsonalari buruzko ideia argia izatea lortzen da, eta kide- eta inplikazio-sena indartzen da.

#### 5.1.4.6 *Sarien eta aitortzen matrizea*

Eraldaketerako bidaia errazteko, saritu eta aitortu egin behar dira langileen lorpenak eta haiengandik espero diren portaerak. Saria eta aitortpena motibatzeke tresna garrantzitsuak dira, langileek erakundearen helburuak lortzeko bidearekin bat egin dezaten (Amoatema & Kyeremeh, 2016).

HPO gauzatzeko, enplegatuek aurretik definitutako portaera batzuk izan behar dituzte (Syed et al., 2019); hori dela eta, zuzendaritza-taldeak sarien eta aitortzen matrize bat prestatu behar du aurretiaz. Matrize horretan, zehatz definitu behar da zer portaerak eta zer lorpenak lortuko dituzten sariak edo aitortpenak, nork emango dituen sari eta aitortzen horiek, eta nola emango dituen. Horrez gainera zenbait denbora-eremutan lan egin behar da: egunero, hiru hilean behin edo urtean behin (ikusi 7. eranskina).

Gainerako tresnen kasuan bezala, sarien eta aitortzen matrizea erakundeko pertsona guztiak partekatu behar da. Horretarako, mezu argi bat bidali behar da, non portaerei dagokienez espero dena azalduko baita. Sarien eta aitortzen matrizea garatu eta ezarri ondoren, zuzendaritza-taldeak eredu izan behar du eta zorrotz jardun behar du matrizean definitutakoa saritzen duenean, liderrek saritzen edo aitortzen dutena errepikatuko baitute taldeko kideek.

#### 5.1.4.7 «0 galera» mentalitatea

Waal arabera (Waal, 2008), HPOk galerarik ez izatearen aldeko mentalitatea dakar, eta, beraz, etengabeko hobekuntzarako kultura behar da erakundean.

Toyotaren ekoizpen-sistemaren fundatzailearen (Taiichi Ohno) arabera, zazpi dira ekoizpenean dauden galera nagusiak: gehiegizko ekoizpena, itxaronaldiak, beharrezkoak ez diren

mugimenduak, garraioak, gehiegizko prozesatzea, beharrezkoa ez den inbentarioa eta akatsak (Gram, 2013; Ohno, 1988).

Erakundeko kide bakoitzak etengabe baztertu behar ditu galera horiek, eta, horretarako, abilezia berriak beharko dira galera berriak detektatzeko eta baztertzeke, kidetza- eta inplikazio-sena indartuta berriro ere.

#### *5.1.4.8 Fasekako progresioa*

Bidaia guztietan bermatu behar da bide zuzena egiten dela, eta, kasu honetan ere, erakunde-kulturaren eraldaketak zenbait mugarri ezarri beharko ditu HPOrako bide egokia egiten dela bermatzeko.

Horretarako, zuzendaritza-taldeak lau faseko progresio bat definitu behar du, eta fase bakoitzean lortu behar diren emaitzak eta espero diren portaerak zehaztu behar dira. Fase bakoitzean espero diren emaitzak gero eta desfaiatzaileagoak izango dira, eta, ondorioz, gero eta abilezia gehiago sustatu beharko dira pertsonen garapenaren barruan. Azken fasera iristeak esan nahi du erakundea HPO dela.

#### *5.1.4.9 Lerroak zuzendutako kudeaketa*

Proposatutako EKEEren prototipoa ekoizpen-lerroak zuzendutako kudeaketan oinarritutako eredua da. Industria-instalazio batean, jarduera nagusia ekoizpen-lerroan bertan gauzatzen da, hau da, makinan bertan, eta, beraz, negozio-helburu orokorrak lortzeko modurik eraginkorrena da eguneroko operatiboaren oinarritzat lerroak eta bertan lan egiten duten pertsonak dituen ingurune bat sortzea. Horretarako, bakoitzak bere mailan hartuko du negozio-emaitzen ardura segurtasunari, ingurumenari, kalitateari, kostuari, ekoizpenari eta pertsonen dagokienez.

Gainera, ekoizpen-lerroak zuzendutako kudeaketak pertsonen kidetza- eta inplikazio-sena sustatzen du, ulertu behar baita enpresaren emaitza orokorrak zuzeneko lotura duela pertsonen ekarpenarekin.

Garrantzitsua da nabarmentzea, lerroak zuzendutako kudeaketa-sistema batean, arduradunak ez direla soilik ekoizpenaren emaitzen erantzule; segurtasunaren, ingurumenaren, kalitatearen eta kostuaren arloko emaitzen ardura ere badute. Segurtasun Sailak segurtasunaren arloko emaitzen ardura izango balu, ez litzateke lagungarria izango makinako langileen kidetza-sena sortzeko, eta, beraz, ez lukete parte hartuko segurtasunaren arloko emaitzen hobekuntzan. Horregatik, ekoizpen-arloko liderrak modu egokian aukeratu behar dira, zerbitzurako lidergorako dituzten gaitasunen arabera eta pertsonak garatzeko abilezien arabera.

Halako kudeaketa-sistemetan, gainerako sail funtzionalek –segurtasuna, kalitatea, kontabilitatea, ingurumena...– gaitasuna areagotzeko zeregina betetzeko eboluzionatzen dute. Bakoitzaren arloan adituak diren heinean, sail bakoitzak esperientzia injektatuko du lerroan, estandarren bitartez, eta, hala, pertsonen gaitasunak etengabe haztea ahalbidetuko da.

#### *5.1.4.10 Komunikazio-eremu irekiak*

Tradizioz, erakunde guztiek giza baliabideen sail bat izan ohi dute, erakunde horietako pertsonak kudeatzeko. Hala ere, inork ez ditu zaintzen taldeak, eta inguruabar oso kontraesankorra da, kontuan hartzen bada talde-lana erakunde guztien funtsa dela. Taldeak, pertsonak bezala, sortu eta hazi egiten dira eta eboluzionatu egiten dute; premia bereziak dituzte, eta, noizbait, desagertu egiten dira ere.

Horregatik, EKEEren ereduan figura zehatz bat planteatzen da instalazioko taldeak zaintzeko. Prestakuntza zehatza izan behar du arlo horretan. Pertsona horren ardura da taldeak sortzeko jarduerak egitea, non taldekide bakoitzaren rola eta itxaropenak argituko baitira. Halaber, haren ardura izango da erabakiak hartzeko prozesua nola gauzatuko den ezartzea eta taldekideen arteko interakziorako arauak adostea.

Era berean, talde bakoitzak misio bat zehaztu behar du talde gisa, eta erabat lerrokatuta egon beharko da Ikuspegi Bateratuarekin.

Lankideen arteko loturak indartzeko –onuragarria izango da errendimendua hobetzeko–, talde bakoitzak denbora bat programatu behar du astean taldekideentzat, taldekideen gogo-aldartez eta emozioez hitz egiteko.

Aldian-aldian, zuzendaritza-taldeko kide batek talde bakoitzaren efikazia ebaluatu behar du. Horretarako, asteroko bileretan parte hartuko du eta taldekideen arteko interakzioa espero diren helburuak lortzeko egokia den ala ez egiaztatuko du.

#### *5.1.4.11 Lan- eta garapen-plana*

Norbanako bakoitzaren gaitasunekiko errespetuan oinarritutako pertsonen garapena funtsezkoa da HPOz hitz egiten denean (Waal, 2008). Hortaz, EKEEren prototipoak jabetza-sena kontuan hartzen duen eta galeren desagerpenean oinarrituta dagoen garapena proposatzen du. Horretarako, makinako langile bakoitza lan egiten duen makinaren zati baten jabea izango da eta ekipoaren zati jakin horretan galerarik ez izatearen ardura izango du. Galeren desagerpenarekin lotutako helburuak Ikuspegi Bateratuarekin bat etorrita ezarriko dira, eta langile bakoitzak ikuspegi horri egindako ekarpen indibiduala izango da.

Gainerako tresnekin gertatzen den bezala, garapen- eta lan-planak helburu orokor bat du EKEEren barruan, eta, hala, sentimendu hauek sortuko ditu erakundearen barruan, langileengan: jabetzarena (makinaren zati baten jabeak dira), inplikazioarena (galderak desagerrarazteko helburu indibidualak lortzeko lan egiten dute), kidetzarena (Ikuspegi Bateratuarekin lerrokatuta daude ekarpen indibidualaren bidez), adindu funtzionalek egindako gaitasunen injekzioa (makinako langileek gaitasun berriak behar dituzte galera berriak desagerrarazten jarraitzeko) eta etengabeko hobekuntzarako mentalitatea (beti daude galerak desagerrarazten, jatorrizko kausaren analisiaren bitartez).

Aurreko guztia lan- eta garapen-plan indibidual batean jasoko da, non item hauek definituko baitira: makinaren zati baten jabetza; Ikuspegi Bateratua; galerak desagerraraztea ekarpen indibidual gisa, eta helburuak lortzeko behar den gaitasunaren injekzioa. Makinako langile bakoitzak aldian-aldian berrikusi beharko du bere plana bere liderrarekin batera, monitorizatzeko eta behar bezala gauzatzen ari dela bermatzeko (ikusi 8. eranskina).

#### *5.1.4.12 EKren inkesta*

Lehenago esan denez, proposatutako prototipoa geruza askoko eredu integral bat da, non lanabes guztiak elkarren artean lotuta baitaude eta haietako batean egindako edozein aldaketak, txikia izanda ere, eragina izango baitu exekuzio-elementu guztietan, eta, ondorioz, erdiko nukleoan.

Horregatik, EK neurtzeko tresna bat behar da, eraldaketarako bidearen etengabeko diagnostikoa egiteko, eta, hala, edozein gorabeheraren aurrean erreakzionatu ahal izateko. Esparru teorikoaren apartatuan, EK ebaluatzeko eredu ugari daudela egiaztatu da. Hala ere, moldagarritasuna areagotzeko, EKEEk 23 galderako inkesta pertsonalizatu bat proposatzen du (ikusi 5. taula). Likerten eskalaren arabera, honela puntuatzen da: “1. Erabat kontra” - “5. Erabat ados”

Inkesta hori aldian-aldian (urtean behin, gutxienez) erantzun behar dute langileek, eta, emaitzen arabera, lider bakoitzak plan bat prestatu beharko du puntuazioa etengabe hobetzeko.


Q1	Nire taldeak eta erakundeak bezeroekin, hornitzaileekin eta kanpoko beste erakunde garrantzitsu batzuekin estuki lotuta lan egiten du, eraginkortasunez.
Q2	Nire taldeak jarrera proaktiboa du, merkatuaren kanpoko beharrezko ondorioz, ekoizpen-proiektuen eta instalazio berria jartzeko edozein aldaketaren aurrean.
Q3	Nire liderra behar beste denbora dago nirekin pertsona gisa nolakoa naizen ezagutzeko.
Q4	Nire helburuak lortzeko behar dudun prestakuntza eta coachinga jasotzen ditut.
Q5	Lider gisa ditudan rolerak espero diren portaerak moldatzen dituzte.
Q6	Uste dut nire erakundea bide onean ari dela nahi diren merkataritza-emaitzak lortzeko.
Q7	Nire emaitzen txostenen jarraipena eta aurkezpena egiteko arduraren hartzen dut.
Q8	Nire esperientzian, beste talde, sail eta eginkizun batzuekiko elkarlana eraginkorra da eta merkataritza-emaitza sendoak lortzen laguntzen du.
Q9	Etengabe hobetzeko, iradokizun zintzoak eta benetakoak egiten dizkidan pertsonak nahi ditut.
Q10	Nire erakundearen, egiten dugun ezerk ez du merezi istripuak baditugu.
Q11	Ekimena dut, edozein galera saihesteko, gauzak hobeto egiteko moduak bilatzeko.
Q12	Nire taldeak lorpenetatik eta hutsegiteetatik ikasten du.
Q13	Nire taldeak ebaluazio konparatiboa eta berriro aplikatzeko teknika baliatzen ditu, barnean zein kanpoan, errendimendua hobetzeko.
Q14	Jarrera proaktiboarekin onartzen dut nire ikaskuntzaren eta garapenaren arloko erantzukizuna (adibidez, prestakuntza egiteko apuntatzen naiz, garapen-esperientziak bilatzen ditut eta coachinga eskatzen dut).
Q15	Negozioaren beharrezkoekin (ikuspegia) lotura argia duen lan-plana dut.
Q16	Ekipoaren zati baten jabea naiz eta emaitzen erantzulea naiz.
Q17	Nire taldeak eta nik sariak jasotzen ditugu arazoaren jatorrizko kausak bilatzeagatik, konponbide azkarrak saihestuta.
Q18	Aitorpena eta saria jasotzen ditut negozioari egiten diodan ekarpenagatik.
Q19	Nire aurrekariak, nire estilo eta ikuspuntu bakanak kontuan hartzen direla eta beste batzuek –nire lankideak eta liderrak barne– aprobetxatzen dituztela sentitzen dut.
Q20	Dagokion helburu-emaitza lortzeko erabaki garrantzitsu guztiak hartzeko gaitasuna duen talde bateko kide naiz.
Q21	Behar bezala inplikaturata nago nire lanari dagozkion erabakietan.
Q22	Nire taldean, rol argia dut eta nire potentziala hobetzen laguntzen dit.
Q23	Informazio egokia jasotzen dut negozioak egiten ditugun ingurunea ulertzeko, nire eginkizuna betetzeari dagokionez.

5. taula. EKren inkesta

## **5.2. EKEE-REN PROTOTIPOAREN INPLEMENTAZIOA**

EKEEren prototipoa inplementatzeko, prozesu zehatz bat definitu behar izan da aurretiaz, urratsez urrats zehazteko nola hedatu prototipoa. Izan ere, Kim eta Changek diotenez (2019), inplementazio-prozesua bera faktore erabakigarria da EKEEk arrakasta izan dezan. Horrez gainera, balio erantsi garrantzitsua da komunitate zientifikoarentzat, ez baitago arlo honi buruzko lanik.

Apartatu honetan, diseinatutako prototipoa inplementatzeko fasea deskribatzen da: EKren eraldaketarako bidaia osoa hartzen du, HPO izatera iritsi arte (ikusi 20. figura).



20. irudia. EKEEren prototipoa inplementatzeko prozesua

Inplementazio-prozesu osoa egiteko, lau urte behar izan dira (2017tik 2020ra). Denbora hori beharrezkoa izan da, batetik, eredia hedatzeko, eta, bestetik, martxan izateko, haren

heldutasuna bermatzeko, eta definitutako KPIen bidez monitorizatzeko behar besteko denboraz.

Inplementatu beharreko EKEEren lanabesen arabera (ikusita 16. irudia), implementazioa laneko hiru alditan bereizi ahal da (ikusita 20. irudia).

#### 5.2.1. 1. aldia - Hasierako prestatze-lanak

Aldi honek izan dituen sei hilabeteetan, hauek izan dira lan nagusiak, EKEEren lanabesei lotuta: komunikazio-matrizearen hedapena, nahasitako alderdiak motibatuzko plana, makinan bertan coachinga egiteko agenda, Ikuspegia, sarien eta aitortpenen matrizea, eta, azkenik, fasekako progresioa, negozioaren KPI nagusietarako esperotako hobekuntzaren bilakaera zehaztuta. Horrez gainera, liderren coachingerako abileziak ebaluatu dira, gaikuntzarako injekzio-plan bat prestatzeko behar izan den kasuetan.

Monitorizatu beharreko negozioaren KPIak aukeratzeko eta, eraldaketarako bidaian zehar, haietako bakoitzean esperotako hobekuntza ezartzeko, enpresak lehiakorra izateko, negozioaren arloan zituen beharrezko arabera eta, sektoreko enpresarik onenen balioei dagokienez, aholkulariek egindako gomendioen arabera hartu zen erabakia. Hala, ereduak ondo funtzionatuz gero, KPIak hobetu egin behar dira instalazioaren bideragarritasuna bermatzeko.

Hauek izan dira zuzendaritza-taldeak definitutako KPIak: egiturazko aurrezki garbiak, instalazioko OEE, segurtasun-ratioa, kalitate-ratioa eta EKren inkesta. 6. taulak adierazle bakoitzerako definitutako eta esperotako eboluzioa laburbiltzen du, fasez fase, HPORA iritsi arte.

	KPI	Inplementazioa baino lehen (IL)	0 fasea	1. fasea	2. fasea	3. fasea	4. fasea (HPO)
Fidagarritasunaren KPIa	Egiturazko aurrezki garbiak	% 100	% 1 vs IL	% 2 vs IL	% 4 vs IL	% 6 vs IL	% 8 vs IL
	Instalazioko OEE	% 65	% 68	% 78	% 80	% 85	% 88
	Segurtasun-ratioa	% 100	Lerroak zuzendu tako S eta Q	% 75 vs IL	% 50 vs IL	% 25 vs IL	% 20 vs IL
	Kalitate-ratioa	% 100		% 90 vs IL	% 70 vs IL	% 40 vs IL	% 50 vs IL
Bideragarritasunaren KPIa	EKren inkesta (erantzunen %: 4 edo 5)	% 48,0	> % 55	> % 65	> % 70	> % 75	> % 80

6. taula. KPIen bilakaera fase batetik bestera, HPORA iritsi arte

Seigarren taulak erakusten duenez, esperotako eboluzioa hobekuntzaren ehunekoaren arabera neurtu da kasu guztietan, 0 faseko segurtasun-ratioan eta kalitate-ratioan izan ezik. Kasu horietan, helburua da segurtasunaren eta kalitatearen kudeaketa inplementatuta izatea,



ekoizpen-lerroek zuzenduta, eta ez segurtasunaren edo kalitatearen berezko eginkizunek zuzenduta.

Prestatze-lanen lehen aldi honen eta aldi horretan egindako lanen ondorioz, zuzendaritza-taldea eraldaketarako bidaian zehar egingo zen prozesuaz eta aldaketaren eragile gisa zegokien zeregin garrantzitsuaz jabetu ziren.

Lehen aldi hau amaitzeko, ekitaldi bat antolatu zen, hasierako zeremonia gisa, erakunde osoari egingo zen aldaketa handiaren berri emateko eta zuzendaritza-taldeak hartutako erabateko konpromisoa nabarmentzeko.

#### 5.2.2. 2. aldia - Martxan jartzea

EKEE hedatzeko bigarren fasearen ezaugarria izan da egindako esfortzua, denborari dagokionez (2 urte) eta hiru lanabes berriak inplementatzeko sortutako lan-zamari dagokionez: "0 galera" mentalitatea, lerroek zuzendutako kudeaketa eta komunikazio-eremu irekiak.

Tresna horiek inplementatu ahal izateko, instalazioaren gobernantza osoa berregituratu behar izan da, ekoizpen-lerroaren gidari-rola indartuta gainerako zeharkako eginkizunen gaitetik. Hala, sei sailetan banatuta dagoen ekoizpen-lerroa hamabost zelula autonomotan azpibanatu zen. Haietako bakoitzak erabateko erantzukizuna izan du HPOrako bidaian zehar helburuak betetzeko eta lortzeko. 7. taulak zelulen sailen arabera banaketa, bakoitzari esleitutako plantilla eta makinak zehazten dira.

			Langile-kop.	makina-kop.
<b>EKOIZPEN-LERROA</b>	1. Saila	1. zelula	23	3
		2. zelula	24	3
		3. zelula	22	3
	2. Saila	4. zelula	28	1
		5. zelula	29	3
		6. zelula	27	2
	3. Saila	7. zelula	28	3
		8. zelula	30	3
		9. zelula	32	3
	4. Saila	10. zelula	35	5
		11. zelula	37	5
		12. zelula	34	4
		13. zelula	38	5
	5. Saila	14. zelula	40	3
	6. Saila	15. zelula	49	3
Langileak, guztira			476	

7. taula. Zelulen banaketa instalazioan

Zelula bakoitzak hiru lider ditu (zelulako liderra, mantentze-lanetako liderra eta prozesuaren liderra), eta beren zelulako negozio-emaiza guztien erantzule dira. Lidergo-postu bakoitza lidergorako abilezien eta taldean lan egitea lortzeko gaitasunaren arabera aukeratu zen.

Nabarmendu behar da zelulako lider izango zirenek aurretiaz txandako ikuskatzaile-lanpostuak betetzen zituztela. Haien zeregina zen lana ikuskatu eta kontrolatzea txandaren barruan, eta ez zuten ia kidetza-senik negozio-emaitzei dagokienez. Horregatik, guztien abileziak ebaluatu behar izan ziren, zuzendaritza-taldeak gaikuntzari lotutako arrakalak identifikatzeko aukera izan zezan. Aurrekoan oinarrituta, lidergorako abileziei buruzko prestakuntza-planak prestatu ziren.

Zelulak hirunaka aktibatu ziren, eta lau hilabeteko iraupena izan zuen aktibazio-ziklo bakoitzak. Hala, 2 urte behar izan ziren hamabost zelulak aktibatzeke.

Duen inpaktuaren ondorioz, lehen aktibazio-jarduera taldea sortzea da. Prozesu horren bitartez, kide bakoitzaren rola eta itxaropenak argitu dira, erabakiak hartzeko prozesua ezarri da eta taldekideen arteko interakziorako arauak adostu dira. Gero, talde bakoitzak bere ikuspegia sortu du, zeinak erabat lerrokatuta egon behar baitu Ikuspegi Bateratuarekin. Azkenik, astean ordu bateko tarteak ezarri da taldekideen gogo-aldarteaz, sentimenduez eta emozioez hitz egiteko, eta haien arteko lotura indartzeko.

Taldea bera sortzeaz gainera, bigarren aldi honetan, ereduaren oinarria erakundeko pertsona guztiek (% 100) galderak desagerraraztea denez, ezinbestekoa da zorrotz inplementatzea etengabeko hobekuntzaren aldeko mentalitatea. Horretarako, Toyotaren *Lean manufacturing* delakoaren TPM ereduaren inplementatzea erabaki da, erreferentzia baita industriaren arloan, ekoizpen-sistemaren eraginkortasun integrala lortzeari dagokionez, erakundeko kide guztiak (% 100) inplikatzeko baitira (Adesta et al., 2018; Hernandez-Matias et al., 2019).

Azkenik, aldi honetan, eta instalazioko langileek eskatuta, bateratu egin zen lanerako uniformeak. Langileek adierazi zuten laneko arropa talde hierarkikoen arabera ezartzeak gutxietsita sentiarazten zituela eta silo-mentalitatea sortzen zuela. Horrekin batera, janzkera-kodearen politiken arabera, erakundearen kulturaren ikusizko adierazpen bat direnez, eragina du langileen portaeran, errendimenduan eta produktibitatean (Entsua et al., 2018; Shinn et al., 2011). Hortaz, enpresako uniforme berria ezarri zen, berdina langile guztientzat, saila edo hierarkia aintzat hartu gabe, eta izena josi zen langile bakoitzaren uniformearen.

Bigarren aldi honen amaieran, ekoizpen-lerro osoa prest zegoen modu autonomoan lan egiteko, eta hirugarren eta azken aldirako (funtzionamendu autonomoa) bidea zabaltzeko.

### 5.2.3. 3. aldia - Funtzionamendu autonomoa

Hedapen-faseko “Funtzionamendu autonomoa” izeneko azken aldi honetan, aurreko bi aldietan zabalduak fusionatu, eta EKn eragiten hasten dira. Sei hilabete behar izan ziren beste bi lanabesak inplementatzeko: estrategiaren hedapena eta lan- eta garapen-plana.

Bi lanabes horien bitartez, zuzendaritzaren ikuspegi zabaltzen da, sailen eta zelulen arabeko planen bidez. Azken emaitza da erakundeko kide bakoitzaren lan- eta garapen-plana, eta, ondorioz, lotura ezartzen da ikuspegi Bateratuaren eta ekarpen indibidualen artean.

Hala, erakundeko maila bakoitzak desagerrarazi beharreko galeren plana prestatu zuen, eta ikuspegi Bateratuari egin beharreko ekarpen indibiduala eta galderak desagerrarazteko plan guztiak gauzatzeko injektatu beharreko gaitasunak definitu ziren.

Hirugarren aldiaren amaieran, esan daiteke eredu erabat zabaldua zegoela. Hala ere, lehenago esanenez, EKren eraldaketa epe luze bidaia da, eta, bidaia izaten ari den eboluzioa aldian-aldian ebaluatzeko eta behar diren neurriak hartzeko, ezinbestekoa da etengabeko diagnostikoa. Horretarako, ereduak bere EKren inkesta du, Likerten eskalaren formatuarekin. 23 galdera dira (ikus 5. taula), eta 1etik (erabat kontra) 5era (erabat ados) kalifikatzen dira.

Hedapen-fasean, inkesta hori urtero egin da, zelula aktibatu eta estrategia inplementatu ondoren, eta, horri esker, instalazioko zuzendaritza-taldeak ereduak EKn izandako inpaktuaren ikuspegi argia izan du.

## 5.3. EKEE-REN PROTOTIPOAREN BALIOZKOTZEA

Apartatu honetan, EKEEren prototipoa baliozkotzeko prozesua azaltzen da. Metodologiaren apartatua azalduenez, EKEEren prototipoaren baliozkotzea hirukoitza izan da: zientifikoa, operatiboa eta funtzionala.

### 5.3.1. Baliozkotze zientifikoa

Prototipoaren diseinuan parte hartu duten adituen esperientziarekin bat, HPO sortzeko EKEE batek 8. taulan erakusten diren hamar lan-elementuak izan eta garatu behar ditu.


1. Kidetza ( <i>Ownership</i> )	6. Ikuspegi Bateratua ( <i>Common vision</i> )
2. Inplikazioa ( <i>Involvement</i> )	7. Pertsonen eta taldeen garapena ( <i>People and Team development</i> )
3. Aldaketaren kudeaketa ( <i>Change management</i> )	8. Komunikazioa ( <i>Communication</i> )
4. Aitorpena ( <i>Recognition</i> )	9. Etengabeko hobekuntza ( <i>Continuous improvement</i> )
5. Lidergoa ( <i>Leadership</i> )	10. Inkesten araberako neurketa ( <i>Survey</i> )

8. taula. Azterlaneko adituen ustez, EKEE batek izan behar dituen elementuak

Hamar elementu horien bitartez, EKEE eraginkor batek eragina izan behar du EK-n, erakundeak HPO bihurtu arte eboluziona dezan.


Baliozkotze zientifiko honen helburua da berrestea elementu horiek bat datozela komunitate zientifikoak gai horri buruz argitaratu duenarekin. Horretarako, metodologiaren apartatuan azaldutako kontsulta gauzatu da (ikusi 3. taula).

Kontsulta horrek 4.639 dokumentu eman zituen, 1981etik 2020ra (uztailaren 25a) EKri buruz argitaratutakoak. Argitalpenak denboraren arabera aztertuta, ikusten da EK-k garrantzi berezia hartu duela XXI. mendearen hasieran, une horretan hasi baitzen komunitate zientifikoa gero eta ekarpen gehiago egiten (ikusi 21. irudia).



21. irudia. EKri buruzko argitalpenen kopurua, 1981etik 2020ra (uztailaren 25a)

Halaber, bilaketatik lortutako dokumentuetan dauden autoreen 50 gako-hitz nagusien (*Authors' Keywords*) aldi bereko agerraldiak aztertu eta bistaratu ondoren, komunitate zientifikoaren ustez EKrekin lotuta dauden gako-kontzeptu nagusiak lortu ahal dira (ikusi 22. irudia). Kontzeptu horiek adituek definitutako elementuak alderatzeko erabili dira (ikusi 8. taula).



Erabateko kointzidentzia (3, 5, 8, 10)

Kointzidentzia partziala (1, 2, 6, 7, 9)

22. irudia. Autoreen 50 gako-hitz nagusien (*Authors' Keywords*) aldi bereko agerraldien sarea

22. irudiarekin bat etorrira, adituek EKEE baten funtsezko elementutzat jo zituzten hamar elementuetatik bederatzi zuzenean edo zeharka aipatzen dira. "Aitorpena" da nabarmentzen ez den bakarra.

Hala ere, 2015etik 2020ra (uztailaren 25a) gehien aipatutako dokumentuak sakonago irakurri eta aztertu ondoren (ikusi 9. taula), ondorioztatu ahal da aitorpena ere elementu garrantzitsutzat duela komunitate zientifikoak, EKri buruz teorizatzen denean (Bortolotti et al., 2015; Chang & Lin, 2015; Faisal et al., 2016; Valmohammadi & Roshanzamir, 2015).

TC <sup>4</sup>	Izenburua	Urtea	Egileak	Afiliazioa	Herrialdea	Iturria	Authors` Keywords
225	Successful lean implementation: Organizational culture and soft lean practices	2015	Bortolotti, T.	Swansea University	United Kingdom	International Journal of Production Economics	High performance manufacturing
			Boscari, S.	University of Padova	Italy		Lean management
			Danese, P.				Multi-group analysis
110	Knowledge transfer and cross-border acquisition performance: The impact of cultural distance and employee retention	2016	Ahammad, M.F.	Nottingham Trent University	United Kingdom	International Business Review	Operational performance
			Tarba, S.Y.	The University of Sheffield			Organizational culture
			Liu, Y.	The University of Kent			Cross-border acquisition
			Glaister, K.W.	University of Warwick			Employee retention
							Knowledge transfer
National cultural distance							
Organizational culture differences							
Performance							
93	Studying the links between organizational culture, innovation, and performance in Spanish companies	2016	Naranjo, J.C.	Universidad Nacional de Colombia	Colombia	Revista Latinoamericana de Psicología	Innovation
			Jiménez, D.	Universidad de Murcia	Spain		Organizational culture
			Sanz, R.				Performance
92	The role of organizational culture in the knowledge management process	2015	Chang, C.L.	National Pingtung University	Taiwan	Journal of Knowledge Management	Knowledge management
			Lin, T.C.	National Sun Yat-Sen University			Organizational culture
92	The guidelines of improvement: Relations among organizational culture, TQM and performance	2015	Valmohammadi, C.	Islamic Azad University-South Tehran Branch	Iran	International Journal of Production Economics	Organizational culture
			Roshanzamir, S.				Organizational performance
							Pharmaceutical industry
							Structural equation modeling (SEM)
Total quality management (TQM)							
83	Understanding counterproductive knowledge behavior: antecedents and consequences of intra-organizational knowledge hiding	2016	Serenko, A.	Lakehead University	Canada	Journal of Knowledge Management	Employee turnover
			Bontis, N.	McMaster University			Facilitating conditions
							Knowledge hiding
							Knowledge sharing
							Organizational culture
Reciprocation							
76	Competing through employee engagement: a proposed framework	2016	Al Mehrzi, N.	Abu Dhabi University	United Arab Emirates	International Journal of Productivity and Performance Management	Employee engagement
			Singh, S.K.				Leadership
							Organizational culture

<sup>4</sup> Erreferentzia: 2020ko irailaren 17a

73	The impact of organizational culture on supply chain integration: A contingency and configuration approach	2015	Cao, Z.	Xi'an Jiaotong University	China	Supply Chain Management	Competing value framework
			Huo, B.	Zhejiang University			Configuration
			Li, Y.	Shanghai Jiao Tong University			Contingency
			Zhao, X.	China-Europe International Business School (CEIBS)			Organizational culture
				South China University of Technology			Supply chain integration
71	Sources of alliance partner trustworthiness: Integrating calculative and relational perspectives	2015	Schilke, O.	University of California	United States	Strategic Management Journal	Alliances
			Cook, K.S.	Stanford University			Contracts
							Interorganizational relationships
							Organizational culture
							Trust
68	Addressing barriers to big data	2017	Alharthi, A.	Abu Dhabi University	United Arab Emirates	Business Horizons	Big data
							Big data infrastructure
			Krotov, V.	Murray State University			Competitive advantage
							Data privacy
							Hadoop
Bowman, M.		Organizational culture					

9. taula. 2015etik 2020ra (uztailaren 25a) bitartean, EKri buruz gehien aipatutako hamar dokumentuak. (Tesiaren egilearena)

### 5.3.2. Baliozkotze operatiboa

Hedapen-fasea amaitu ondoren, urte batez EKEEren prototipoa modu autonomoan exekutatu zen (ikusi 20. irudia), eta ereduaren inpaktuak egiaztatzeko behar ziren datuak eman zituen.

Lehenago esan den moduan, EKEEren eredia EKn eragiteko sortu zen, instalazioaren KPI edo negozio-emaitzak hobetzeko, hala haren bideragarritasuna bermatzeko. Horregatik, prototipoaren baliozkotze operatiboa hauen arteko diferentzia neurtuta egin da zehazki:

- ✓ Eredua ezarri baino lehenagoko (2017. urtearen amaiera) eta ondorengo (2020. urtearen amaiera) KPIetan lortutako bariazioa.
- ✓ KPI bakoitzerako esperotako inpaktua (ikusi 6. taula).

Jarraian, EKEEren prototipoa inplementatu ondoren, KPI bakoitzean lortutako inpaktua laburbiltzen (ikusi 23. irudia) eta aztertzen da.

	Adierazlea	2017 Inplementazioa baino lehen (IL)	2020	2017 vs 2020	Hedapen- fasearen amaieran esperota-ko inpaktua	Espero zena bete da?
<b>Fidagarritasuna-ren KPI</b>	Egiturazko aurrezki garbiak	100%	98,6%	1,4%	1% vs AI	<b>BAI</b>
	OEE% Taldeen efikazia orokorra	65%	69,8%	69,8%	68%	<b>BAI</b>
	Segurtasun-ratioak	100%	Lerroak kudeatutako S	Lerroak kudeatutako S, implementa-tuta	Lerroak kudeatu-tako S eta Q	<b>BAI</b>
	Kalitate-ratioak	100%	Lerroak kudeatutako Q	Lerroak kudeatutako Q, implementa-tuta		<b>BAI</b>
<b>Bideragarritasuna- ren KPI</b>	<b>EKren inkesta</b> (4 edo 5 puntuko erantzunen %)	48,00%	58,1%	58,1%	>55%	<b>BAI</b>

23. irudia. EKEEren prototipoa implementatu ondoren, KPI bakoitzean lortutako inpaktuaren laburpena.

- ✓ Egiturazko kostuen aurrezki garbia: EKEEren prototipoaren implementazioarekin berez loturarik ez duten inpaktu positibo eta negatibo guztiak isolatu ondoren, % 1,4koak izan ziren egiturazko kostuen aurrezki garbiak. Inplementazio-fasearen amaieran, % 1eko hobekuntza espero zen, eta, beraz, bete egin da KPI honetarako espero zena.
- ✓ Instalazioko OEE: Bidaiaren hasieran, instalazioko makinaren batez besteko eraginkortasuna % 65ekoa zen; implementazio-fasearen amaieran, hobetu egin da, eta % 69,8ra iritsi da. Inplementazio-fase honen amaieran espero zen OEE % 68koa zenez, OEErako ere bete dira definitutako helburuak.
- ✓ Segurtasun- eta kalitate-ratioak: Zuzendaritza-taldeak definitu zuen lehen fase honetan bi KPI horietarako helburua izan behar zela haien kudeaketa lerrora transferitzea, zelulako liderrak izan zitezten hurrengo faseetan hobetzeko ardura dutenak. Inplementazio-fasearen amaieran, ekoizpen-zelulek –makinako langileak barne– segurtasunaren eta kalitatearen arloko emaitzak monitorizatzen dituzte eta arazoak aztertzen dituzte, jatorrizko arrazoiak bilatzeko eta neurri sendoak ezartzeko, berriro gerta ez dadin. Horrenbestez, KPI hauetarako ere betetzat jotzen dira definitutako itxaropenak.

Lau KPI hauetan –“Fidagarritasunaren KPIak”– inpaktua lortzea bermea da instalaziorako, epe laburrera zein luzera. Hala ere, emaitza hauek epe luzera iraunkorrak izan daitezzen, zuzendaritza-taldeak erabaki zuen monitorizatu beharreko “bideragarritasunaren KPI” bat gehitzea, EKEEren prototipoa EKn eragiteko eraginkorra den ala ez aztertzeko. Aukeratutako KPI izan da EKren inkestan 4 puntu (ados) edo 5 puntu (erabat ados) lortu duten erantzunen ehunekoa.

- ✓ EKren inkesta: Bidaiaren hasieran, 4 puntu (ados) edo 5 puntu (erabat ados) lortu zuten erantzunak erantzun guztien % 48,0 ziren. Eredua hedatu eta gero, ehunekoa % 58,2ra iritsi



zen. KPI honetarako definitutako inpaktua zen 4 edo 5 puntu zuten erantzunak gutxienez % 55,0 izatea. Hortaz, KPI honek ere bete ditu itxaropenak.

Horrez gainera, EKEEK erakundearen duen eragina sakonago aztertzeko, baliozkotze operatiboa egiteko prozesuan, sakon aztertu dira EKren inkestaren emaitzak.

EKren inkestaren analisi zehatz horren lehen elementu aipagarria parte-hartzea da. Spitzmüller eta beste batzuen arabera (2006), halako inkestetan parte-hartzerik ez izatea EKren ezkutuko arazoak daudenaren ebidentzia da. Aztertzen ari garen kasuan, parte-hartzeak % 14,7 egin du gora, eta 2020aren amaieran %80,9ra iritsi zen: hobekuntza nabarmena da.

EKren inkestaren analisi sakonarekin jarraitzeko, 24. irudiak 2017an eta 2020an galdera bakoitzean 4 edo 5 puntu izan zuten erantzunen ehunekoa alderatzen da, eta bakoitzean izandako eboluzio positiboa edo negatiboa islatzen du.

Galdera	2017	2017 vs 2020	2020
1	57,8%	-0,8%	57,0%
2	44,1%	8,9%	53,1%
3	52,4%	2,4%	54,7%
4	57,0%	7,6%	64,5%
5	52,9%	4,4%	57,3%
6	38,1%	8,8%	46,9%
7	69,8%	8,1%	77,9%
8	49,5%	3,8%	53,4%
9	33,8%	16,5%	50,3%
10	39,0%	23,2%	62,3%
11	52,1%	25,0%	77,1%
12	51,7%	8,0%	59,8%
13	38,4%	12,4%	50,8%
14	65,2%	4,9%	70,1%
15	57,0%	5,3%	62,3%
16	73,7%	1,5%	75,1%
17	49,2%	11,7%	60,9%
18	22,4%	14,5%	36,9%
19	53,3%	8,7%	62,0%
20	44,4%	5,8%	50,3%
21	28,8%	24,6%	53,4%
22	38,1%	8,8%	46,9%
23	36,5%	20,2%	56,7%
<b>Bataz bestekoa</b>	<b>48,0%</b>	<b>10,2%</b>	<b>58,2%</b>

24. irudia. Inpaktua EKren inkestaren galdera bakoitzean (4 edo 5 puntuko erantzunen ehunekoa)

Ikus daitekeenez, galdera guztiak hobetu dira, lehenengoa izan ezik: «Nire taldeak eta erakundeak bezeroekin, hornitzaileekin eta kanpoko beste erakunde garrantzitsu batzuekin estuki lotuta lan egiten du, eraginkortasunez». Kasu honetan, apur bat behera egin du:  $-\% 0,8$ . Galdera honi emandako erantzuna ( $\% 57,0$ ) batezbestekoaren antzekoa denez ( $\% 58,2$ ), emaitza onargarria da, eta etorkizuneko inkestetan monitorizatu egin behar da.

### 5.3.3. Baliozkotze funtzionala

Metodologiaren apartatua azaldu denez, baliozkotze funtzionalaren helburua da aztertzea ereduaren alderdi ezberdinen artean HPO lortzeko sortutako eragina.

Eragin hori ekuazio matematikoaren forman islatu da, non HPO mendeko aldagaia baita, eta diseinu-elementuak (lidergoa, inplikazioa eta kidetza), berriz, aldagai independenteak.


Mendeko aldagaia (HPO) lortzeko, zuzendaritza-taldeak definitutako bideragarritasunaren KPIa erabili da: EKren inkesta. Adierazle horrek inkestan 4 (ados) edo 5 (erabat ados) puntu lortu zituzten erantzunen ehunekoa islatzen du.

Ildo horretan, 10. taulak mendeko aldagaiaren (HPO) balioa islatzen du bost mailetan, inkestan 4 (ados) edo 5 (erabat ados) puntu lortu zituzten erantzunen ehunekoaren arabera.

EKren inkestan 4 edo 5 puntu lortu dituzten galderen kopurua		HPO balioa
Hemendik	Hona	
% 0	<% 55	1
% 55	<% 65	2
% 65	<% 70	3
% 70	<% 75	4
% 75	<% 100	5


10. taula. HPO balioa, EKren inkestan 4 edo 5 puntu lortu dituzten erantzunen arabera

Beste alde batetik, hiru aldagai independenteak (lidergoa, inplikazioa eta kidetza) lortzeko, EKren inkestako galdera bakoitza (ikusi 5. taula) hiru diseinu-elementuetako batekin lotu da (lidergoa, inplikazioa edo kidetza) bederatziz exekuzio-elementuen bidez (aldaketaren kudeaketa, zerbitzurako lidergoa, Ikuspegi Bateratua, etengabeko hobekuntza, ebaluazioa eta eraberritzea, garapen indibiduala, saria eta aitortzea, ekipoen garapena eta komunikazio gardena), 25. irudian ikus daitekeenez.



25. irudia. EKren inkestako galderen eta exekuzio-elementuen arteko lotura

Aldagai independenteak (lidergoa, kidetza eta inplikazioa) eta mendekoa (HPO) lortu ondoren, zenbait analisi estatistiko behar izan dira aldagai independente bakoitzak mendeko aldagaian duen eragina definitzen duen ekuazio matematikoa zehazteko. 26. irudiak fluxu-diagrama batean irudikatzen du gauzatuta prozesu estatistiko osoa.



26. irudia. EKEEren prototipoaren baliozkotze funtzionalean zehar egindako analisi estatistikorako erabilitako laneko fluxu-diagrama

26. irudiak erakusten duenez, analisi estatistikoaren hasieran, EKren inkestaren bidez lortutako lagin osoaren (476 partaide; bakoitzak 23 galdera erantzun ditu) konfiantza-analisi bat dago. Cronbachen alpharen bidez egin da, laginak baliozkotzeko gehien erabilitako koefizientea baita (Ramos et al., 2020). Emaitza 0,953 balioa izan da, eta, beraz, laginaren sendotasuna berma daiteke, Tavakol & Denicken arabera (2011), balio hori 0,9tik gorakoa denez, bat dator barne-sendotasunaren maila bikain batekin, eta, aldi berean, EKren inkestaren tresnaren egokitasuna berresten du.

Datuen sendotasuna bermatu ondoren, murriztu egin da aldagaien dimentsionaltasuna, haien interpretagarritasuna areagotzeko, eta, hala, prototipoaren baliozkotze funtzionala egiten jarraitu ahal izateko.

26. irudian ikus daitekeenez, horretarako aukeratutako teknika Osagai Nagusizko Analisia (ONA) izan da, osagai nagusiak lortzeko aukera ematen baitu; datuetan oinarritzko aldaketak egiteko erabili dira osagai horiek (Jolliffe & Cadima, 2016). Osagai nagusien kopurua erabakitzeko, kontuan hartu da gorago azaldutako % 75etik gorako bariantza, analisi faktorialaren koefiziente txiki batzuk bereizita (0,3tik beherako balio absolutuak).

Datuen egokitasuna bermatzeko eta ONA analisia berme guztiekin egiteko, aurretiaz Kaiser-Meyer-Olkin eta Bartlett probak egin dira, batetik, aldagaien arteko korrelazio partzialaren

indarra aztertzeko (Kader et al., 2009), eta, bestetik, bermatzeko korrelazioa ez dela identitate matrize bat (Arsham & Lovric, 2011).

11. taulan, Kaiser-Meyer-Olkin eta Bartlett testetan diseinu-elementu bakoitzerako (lidergoa, kidetza eta inplikazioa) lortutako emaitzak daude. Bi probak korrelazio partziala baliozkotzeko egin dira. 12. taulan, diseinu-elementu bakoitzerako Osagai Nagusizko Analisisan lortutako emaitzak daude, % 75etik gorako guztizko bariantzarekin.

		Lidergoa	Kidetza	Inplikazioa
<b>Kaiser-Meyer-Olkin testa</b>		,911	,905	,912
<b>Bartlett testa</b>	<b>Khi karraturako hurb.</b>	1387,524	1472,635	1610,616
	<b>Df</b>	28	28	21
	<b>Esang.</b>	,000	,000	,000

11. taula. Kaiser-Meyer-Olkin eta Bartlett testa

11. taulan ikusten denez, Kaiser-Meyer-Olkin testaren bidez lortutako balioek erakusten dute diseinu-elementu guztietarako (lidergoa=0,911, kidetza=0,905 eta inplikazioa=0,912) balioak 0,9 eta 1 artean daudela. Beraz, ondorioa da laginaren egokitzapena bikaina dela. Halaber, Bartlett testaren esanguraren arabera, hiru kasuetan (lidergoa, kidetza eta inplikazioa), emaitza 0,05etik beherakoa da, eta, beraz, ondorioa da talde guztiek ez dutela bariantza bera.

Hala, proba biek Osagai Nagusizko Analisia egiteko datuen egokitasuna berresten dute. Analisi horren bidez, % 75etik gorako guztizko bariantza azalduko, lau osagarri nagusi sortu dira lidergorako (L1, L2, L3 eta L4) eta kidezarako P1, P2, P3 eta P4) eta hiru, inplikaziorako (I1, I2 e I3) (ikusi 12. taula).

Osagaia	Lidergoa			Kidetza			Inplikazioa		
	Guztira	Bariantza %	% metatua	Guztira	Bariantza %	% metatua	Guztira	Bariantza %	% metatua
1	4,092	51,150	51,150	4,223	52,793	52,793	4,306	61,517	61,517
2	,971	12,135	63,285	,904	11,303	64,096	,571	8,163	69,680
3	,619	7,736	71,021	,645	8,068	72,164	,533	7,607	77,287
4	,569	7,108	78,129	,516	6,445	78.609			

12. taula. Osagai Nagusizko Analisisaren emaitzak

Osagai nagusiak atera ondoren, HPOk haietako bakoitzaren gainean duen inpaktua ezagutzeko, baliozkotze funtzionalaren hurrengo urratsa izan da osagai nagusi horien erregresio anizkoitzeko analisi bat, aldagai independenteak eta horretarako sortutako HPO mendeko aldagaia kontuan hartuta (ikusi 10. taula).

Erregresio anizkoitza egin aurretik, analisiaren bideragarritasuna baliozkotu da ANOVA probaren bidez. Erregresio anizkoitzeko analisiaren laburpena 13. taulan jaso da, eta 14. taulak, beriz, analisia balioztatzeko lortutako ANOVA erakusten du.

R	R karratua	R karratu doitua	Zenbatespenaren errore estandarra
.841	,707	,700	1,01217

13. taula. Erregresio anizkoitzaren analisia laburpena

Korrelazio anizkoitzeko koefizientearen balioak ( $R=0,841$ ) berretsi egiten du mendeko aldagaiaren (HPO) eta 3 aldagai independenteen arteko erlazioa, eta erantzunetan izandako aldakortasunaren parte handia azaltzen du.

	Karratuen batura	df	Batezbesteko koadratikoa	F	p
Erregresioa	1125,164	11	102,288	99,843	,000
Hondarra	466,142	455	1.024		
Guztira	1591,306	466			

<sup>a</sup> Mendeko aldagaia: HPO

14. taula. ANOVA<sup>a</sup> testaren emaitzak

Horrez gainera, 14. taulan ikus daitekeenez, ANOVA testak frogatzen du aldagai independenteek estatistikoki iragartzen dutela mendeko aldagaia:  $F(11, 455) = [99.843]$ ,  $p = 0,000$ . Hortaz, erregresio-eredua ondo egokitzen zaie datuei, eta, aldi berean, adierazgarritasuna 0,000 ( $p < 0,05$ ) denez, eredia balioztatutzat jo daiteke.

15. taulak aldagai independente bakoitzaren esangura estatistikoa erakusten du, eta ondorioa da koefizienteak estatistikoki esanguratsuak direla  $p < 0,05$  bada, eta balio hori bete egiten da L1, P1, P3 eta I1 aldagaietan.

	Estandaritzatu gabeko koefizienteak		Koefiziente estandaritzatuak	t	Esang.
	B	DesbEst Errorrea	Beta		
(Konstantea)	3,039	,047		64,874	,000
Lidergoa 1 (L1)	3,738	,126	,399	5,851	,000
Lidergoa 2 (L2)	,004	,049	,002	,073	,942
Lidergoa 3 (L3)	-,066	,049	-,036	-1,346	,179
Lidergoa 4 (L4)	,104	,049	,057	2,122	,034
Kidetza 1 (P1)	,389	,121	,211	3,222	,001
Kidetza 2 (P2)	,047	,054	,026	,881	,379
Kidetza 3 (P3)	-,151	,049	-,082	-3,088	,002
Kidetza 4 (P4)	,021	,050	,011	,427	,669
Inplikazioa 1 (I1)	,469	,129	,254	3,630	,000
Inplikazioa 2 (I2)	,062	,051	,033	1,215	,225
Inplikazioa 3 (I3)	,020	,050	,011	,392	,695

<sup>a</sup> Mendeko aldagaia: HPO

15. taula. Aldagai independenteen esangura estatistikoa

Horregatik, osagai nagusiak atera ondoren eta diseinu-elementuek (lidergoa, kidetza eta inplikazioa) HPOn duten eragina definitzeko azken urrats gisa, erregresio anizkoitzaren beste

azterlan bat egin zen, oraingoan lau aldagai esanguratsuak ardatz hartuta (L1, K1, K3 eta I1). 16. taulak ateratako erregresio anizkoitza erakusten du.

	Estandarizatu gabeko koefizienteak		Koefiziente estandarizatuak	t	Esang.
	B	DesbEst. Errorea	B		
<b>(Konstantea)</b>	3,039	,047		64,874	,000
<b>Lidergoa 1 (L1)</b>	,691	,122	,374	5,677	,000
<b>Kidetza 1 (P1)</b>	,410	,112	,222	3,675	,000
<b>Kidetza 3 (P3)</b>	-,152	,048	-,082	-3,175	,002
<b>Inplikazioa 1 (I1)</b>	,491	,115	,265	4,255	,000

a. Mendeko aldagaia: HPO

16. taula. Aldagai esanguratsuen erregresio anizkoitza

Analisiaren puntu honetan, diseinu-elementu bakoitzak (lidergoa, jabetza eta inplikazioa) HPOn duen inpaktua erakusten duen ekuazio matematikoa honela zehaztu da:


$$HPO = 0,374 * L1 + 0,222 * P1 - 0,082 * P3 + 0,265 * I1$$

Orokorrean, ekuazio matematikoak erakusten duenez, mendeko aldagaiaren (HPO) gaineko eragina positiboa da L1 (0,374), P1 (0,222) eta I1 (0,265) aldagaien kasuan, eta negatiboa berriz, P3rako (-0,0082).

Lortutako emaitzek erakusten dute, iragarri zen moduan, EKEEren prototipoa eredu integral bat dela, zeinean kontuan hartu behar baitira alderdi guztiak, haietako bat ere baztertu gabe, eta, hala, EKEEren prototipoaren funtzionaltasuna balioztatu da.

#### 5.4. EKEE-REN AZKEN BERTSIOAREN DEFINIZIOA

Apartatu honetan EK eraldatzeko behin betiko eredu definitzen da. Hedapen-fasean eta haren osteko baliozkotzean zehar ikasitakoa du oinarritzat (ikus 27. irudia).




27. irudia. Erakunde-kultura eraldatzeko eredu (EKEE), operazio-bikaintasunaren bila


Bisualki, 27. irudian ikus daitekeenez, behin betiko EKEEk aldeak ditu prototipoarekin, baina soilik EKren inkesta irudikatzen duen zatian.

Ereduaren prototipoan, eredu zeharkatzen zuen gezi batek irudikatzen zuen inkesta (ikusi 28. irudia); behin betiko ereduaren berriz, bederatzizko exekuzio-elementuak hartzen dituen zirkulu bat da (ikusi 29. irudia).





28. irudia. EKren inkestaren irudikapena EKEEren prototipoan



29. irudia. EKren inkestaren irudikapena behin betiko EKEEn

Aldaketa hori baliozkotze funtzionalaren ondorioz egin da, baliozkotze horretan EKren inkestako galdera bakoitza bederatzi exekuzio-elementuetako batekin lotu baita (ikusi 27. irudia).

Ikaskuntza hori garrantzitsutzat jo da, eta, horregatik, behin betiko EKEE irudikatzean, erabaki da EKren inkesta irudikatzeko modua aldatzea. Behin betiko EKEEn, EKren inkesta bederatzi exekuzio-elementuak zeharkatzen dituen zirkulu baten bidez irudikatu da, inkestako 23 galderatako bakoitza bederatzi exekuzio-elementu horietako batekin lotuta dagoenaren ideia indartzeko.

Horrez gainera, EKren inkestaren taulan, zutabe bat erantsi da, non zehazten baita galdera bakoitza zein exekuzio-elementurekin lotzen den (17. taula).

<b>Aldaketaren kudeaketa</b>	Q1.	Nire taldeak eta erakundeak bezeroekin, hornitzaileekin eta kanpoko beste erakunde garrantzitsu batzuekin estuki lotuta lan egiten du, eraginkortasunez.
	Q2.	Nire taldeak jarrera proaktiboa du, merkatuaren kanpoko beharrezanen ondorioz, ekoizpen-proiektuen eta instalazio berria jartzeko edozein aldaketaren aurrean.
<b>Zerbitzurako lidergoa</b>	Q3.	Nire liderra behar beste denbora dago nirekin pertsona gisa nolakoa naizen ezagutzeko.
	Q4.	Nire helburuak lortzeko behar dudana prestakuntza eta coachinga jasotzen ditut.
	Q5.	Lider gisa ditudan rolerik espero diren portaerak moldatzen dituzte.
<b>Ikuspegi Bateratua</b>	Q6.	Uste dut nire erakundea bide onean ari dela nahi diren merkataritza-emaizak lortzeko.
	Q7.	Nire emaitzen txostenen jarraipena eta aurkezpena egiteko ardura hartzen dut.
	Q8.	Nire esperientzian, beste talde, sail eta eginkizun batzuekiko elkarlana eraginkorra da eta merkataritza-emaizak sendoak lortzen laguntzen du.
<b>Etengabeko hobekuntza</b>	Q9.	Etengabe hobetzeko, iradokizun zintzoak eta benetakoak egiten dizkidaten pertsonak nahi ditut.
	Q10.	Nire erakundearen, egiten dugun ezerk ez du merezi istripuak baditugu.
	Q11.	Ekimena dut, edozein galera saihesteko, gauzak hobeto egiteko moduak bilatzeko.
<b>Ebaluazioa &amp; Eraberritzea</b>	Q12.	Nire taldeak lorpenetatik eta hutsegiteetatik ikasten du.
	Q13.	Nire taldeak ebaluazio konparatiboa eta berriro aplikatzeko teknika baliatzen ditu, barnean zein kanpoan, errendimendua hobetzeko.
<b>Garapen indibiduala</b>	Q14.	Jarrera proaktiboarekin onartzen dut nire ikaskuntzaren eta garapenaren arloko erantzukizuna (adibidez, prestakuntza egiteko apuntatzen naiz, garapen-esperientziak bilatzen ditut eta coachinga eskatzen dut).
	Q15.	Negozioaren beharrezanekin (Ikuspegia) lotura argia duen lan-plana dut.
	Q16.	Ekipoaren zati baten jabea naiz eta emaitzen erantzulea naiz.
<b>Saria &amp; Aitorpena</b>	Q17.	Nire taldeak eta nik sariak jasotzen ditugu arazoaren jatorrizko kausak bilatzeagatik, konponbide azkarrak saihestuta.
	Q18.	Aitorpena eta saria jasotzen ditut negozioari egiten diodan ekarpenagatik.
	Q19.	Nire aurrekariak, nire estilo eta ikuspuntu bakanak kontuan hartzen direla eta beste batzuek –nire lankideak eta liderrak barne– aprobetxatzen dituztela sentitzen dut.
<b>Ekipoen garapena</b>	Q20.	Dagokion helburu-emaizta lortzeko erabaki garrantzitsu guztiak hartzeko gaitasuna duen talde bateko kide naiz.
	Q21.	Behar bezala inplikaturik nago nire lanari dagokion erabaketan.
	Q22.	Nire taldean, rol argia dut eta nire potentziala hobetzen laguntzen dit.
<b>Komunikazio gardena</b>	Q23.	Informazio egokia jasotzen dut negozioak egiten ditugun ingurunea ulertzeko, nire eginkizuna betetzeari dagokionez.

17. taula. EKren inkesta behin betiko EKEEn

Gainerako elementu guztietarako eta haien konfiguraziorako, prototipoa baliozkotuta dago, eta, beraz, EKEE 27. irudian definitutakoa da.





## **6 ONDORIOAK ETA MUGAK**

---



## 6 ONDORIOAK ETA MUGAK

**A**partatu honetan ikerketa-lanaren ondorioak azaltzen dira, eta haren ekarpenak eta mugak zehazten dira.

Esparru teorikoak berretsi du, zalantzazko egoeretan, ingurunea kaotikoa eta ezegonkorra denean, eta, beraz, enpresentzat eraginkorrak eta efikazak izatea nahikoa ez denean, berritzea ezinbestekoa dela bizirik irauteko, eta, horretarako, ikuspegi berriak asmatu behar dira, enpresaren prozesu guztien azterketa sakona eginda, operazio-bikaintasuna lortzeko. Adituen arabera, erakundeen bideragarritasuna arriskuan dagoenean, erabat eraldatu behar dira, haien operazioak optimizatu, eta HPO bihurtzeko, Key Performance Indicators (KPI) eraginkorren ikuspegiaren arabera, lotura estua baitago HPOren eta errendimenduaren artean.

Halaber, esparru teorikoak egiaztatu du, operazio-bikaintasuna edo HPO lortzeko, erakundeen jarduketa-eremua alderdi ukiezinagoetarantz zabaldu behar dela, hala nola erakunde-kulturarantz, eta horregatik du garrantzi berezia EKren kudeaketak. Hala, EK neurtzeko hainbat tresna identifikatu diren arren, komunitate zientifikoak nabarmendu du EKren diagnostikoan eta kudeaketan oinarritutako azterlan enpiriko batek balio erantsi garrantzitsua dakarrela komunitate zientifikoarentzat, eta inguruabar horrek justifikatzen du ikerketa-lan honen garrantzia.

Hala, esparru teoriko horren barruan, ikerketa-lan honen helburu nagusia izan da EKEE bat diseinatzea, gero inplementatzeko eta azken baliozkotzea egiteko, operazio-bikaintasuna lortzeko, industriako ingurune erreal batean.

Ikerketaren aurkikuntzei esker, berretsi egin daiteke helburu hori lortu dela, EKEE bat diseinatu, inplementatu eta balioztatu delako, baita EK horretarako egokia den eredu baten bidez sistematikoki eta nahita kudeatu ahal dela ere. Horrez gainera, lortutako emaitzek erakusten dute nabarmen hobetu dela operazio-bikaintasuna, negozioaren KPI adierazleen bidez neurtuta. Eta egiaztatu da EK baliatuta erakundearen errendimendua hobetu ahal dela, ingurune bat sortuta, non kideen portaerek eta jarrerak eboluzionatu egingo baitute egokitzeko eta enpresaren eta operazioen eraginkortasuna hobetzeko.

Enpresen ikuspegitik, ikerketa-lan honen ekarpenak baliagarriak izan daitezke enpresaren errendimenduaren adierazleak hobetu nahi dituzten erakundeentzat. Horretarako, proposatutako eta enpirikoki balioztatutako EKEE inplementatu behar dute EK kudeatzeko.

Ikerketa-lanaren indarguneei dagokienez, industriako ingurune erreal batean garatu denez, izaera enpirikoa du, eta hori da indargune nagusia. Horrez gainera, ekoizpen-instalazioak bere ingurunean duen 90 urte baino gehiagoko sustraitzea eta langileen lan-esperientzia ikerketa-lanaren beste indargune bat dira, egindako probak eta emaitzak lortzeko erabilitako datuak sendotzat jo baitaitezke.

Azkenik, ikerketa zientifiko guztiek dituzte mugak, eta hala da ikerketa-lan honetan ere. Azterlana fabrikazio-ingurune erreal batean egin bada ere, EKEE esperimentazio-kasu bakarrean lortutako emaitzekin baino ez da balioztatu, eta inguruabar hori muga bat izan daiteke haren balioztatze operazionalari eta funtzionalari dagokienez.





## **7 ETORKIZUNERAKO LAN-ILDOAK**

---



# 7 ETORKIZUNERAKO LAN-ILDOAK

**A**partatu honetan, etorkizunerako lan-ildoak definitzen dira, ikerketa-lanaren aurkikuntzak eta ondorioak kontuan hartuta.

Maila teorikoan, nabarmendu behar da, azterlanaren emaitzei esker, etorkizunean, ikerlariek aurkikuntza hauek erabili ahal izango dituztela EKren eremuan, ezagutza berriak garatzen jarraitzeko. Eta aholkulari profesionalek HPOri buruzko teoriak indartzeko erabili ahal izango dituzte, fabrikazio-ingurune erreal batean lortutako ebidentzia praktikoen bidez.

Halaber, ikerketa-lan honen bidez lortutako EKEEren aplikagarritasuna eta eraginkortasuna areagotzeko, ereduarekin berarekin lotutako etorkizunerako lan-ildoak aurreko apartatuan planteatutako mugarekin lerrokatuta egongo lirateke. Apartatu horretan egiaztatu da, ikerketa fabrikazio-ingurune erreal batean egin bada ere, EKEE esperimentazio-kasu bakarrean lortutako emaitzekin baino ez dela balioztatu. Hortaz, etorkizunerako lan-ildo gisa, EKEEren inplementazioa industriako beste ingurune batzuetan edo industriakoak ez direnetan errepikatzeke aukera planteatzen da.

Horrenbestez, etorkizunean EKEEren erreplikak egon daitezkeela kontuan hartuta, oso garrantzitsua da ikerketa-lanaren eta eraldaketa-ereduaren jabetza intelektuala erregistratzea, eta, beraz, beste lan-ildo bat izan daiteke.

Ikerketa-lana egin den industria-instalazioari dagokionez, EKEEk bere KPIen eboluzioa lau faseetan planteatzen duela kontuan hartuta, komenigarria izango litzateke instalazioko KPIen benetako eboluzioaren jarraipena egitea datozen urteetan, EKEEk planteatu den inpaktua duela berresteko.

Azkenik, EKEEn elementu berriak sartzen jarraitzeko, eta, hala eguneratuta mantentzeko, ikerketa-eremuan gaur egun egindako azterlan berrienak alderdi berriak aztertzen ari direnez (adibidez, lana eta familia-bizitza bateratzea goi-errendimenduko erakundeetan), EKEE

indartzeko etorkizunerako lan-ildo bat izango da ikuspegi berri horiek aztertzea, gero ereduan txertatzeko.



## **8 BIBLIOGRAFIA**

---



## 8 BIBLIOGRAFIA

- Abdullah, N. H., Shamsuddin, A., Wahab, E., & Hamid, N. A. A. (2014). The Relationship between Organizational Culture and Product Innovativeness. *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, 129, 140-147. <https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2014.03.659>
- Adesta, E. Y. T., Prabowo, H. A., & Agusman, D. (2018). Evaluating 8 pillars of Total Productive Maintenance (TPM) implementation and their contribution to manufacturing performance. *IOP Conference Series: Materials Science and Engineering*, 290(1). <https://doi.org/10.1088/1757-899X/290/1/012024>
- Al Mehrzi, N., & Singh, S. (2016). Competing through employee engagement: a proposed framework. *International Journal of Productivity and Performance Management*, 65(6), 831-843. <https://doi.org/10.1108/IJPPM-02-2016-0037>
- Alassaf, D., Dabić, M., Shifrer, D., & Daim, T. (2020). The impact of open-border organization culture and employees' knowledge, attitudes, and rewards with regards to open innovation: an empirical study. *Journal of Knowledge Management*, 24(9), 2273-2297. <https://doi.org/10.1108/JKM-02-2020-0122>
- Alharthi, A., Krotov, V., & Bowman, M. (2017). Addressing barriers to big data. *Business Horizons*, 60(3), 285-292. <https://doi.org/10.1016/j.bushor.2017.01.002>
- Alvarez-Meaza, I., Zarrabeitia-Bilbao, E., Rio-Belver, R. M., & Garechana-Anacabe, G. (2020). Fuel-Cell Electric Vehicles: Plotting a Scientific and Technological Knowledge Map. *Sustainability*, 12(6), 2334. <https://doi.org/10.3390/su12062334>
- Amah, O. E., & Oyetunde, K. (2019). Determinants of High-Performance Organizations in Africa: A Conceptual Framework and Research Propositions. *International Journal of Management, Economics and Social Sciences*, 8(4). <https://doi.org/10.32327/ijmess/8.4.2019.20>

- Amoatema, A. S., & Kyeremeh, D. D. (2016). Making Employee Recognition a Tool for Achieving Improved Performance: Implication for Ghanaian Universities. *Journal of Education and Practice*, 7(34), 46-52.
- Araújo, R., Santos, G., da Costa, J. B., & Sá, J. C. (2019). The quality management system as a driver of organizational culture: An empirical study in the Portuguese textile industry. *Quality Innovation Prosperity*, 23(1), 1-24. <https://doi.org/10.12776/qip.v23i1.1132>
- Arnott, J., Lacy, P., & Lowitt, E. (2009). The challenge of integrating sustainability into talent and organization strategies: Investing in the knowledge, skills and attitudes to achieve high performance. *Corporate Governance*, 9(4). <https://doi.org/10.1108/14720700910985025>
- Arsham, H., & Lovric, M. (2011). Bartlett's Test. *International Encyclopedia of Statistical Science*, March. <https://doi.org/10.1007/978-3-642-04898-2>
- Asamu, F. F. (2014). The Impact of Communication on Workers' Performance in Selected Organisations in Lagos State, Nigeria. *IOSR Journal of Humanities and Social Science*, 19(8), 75-82. <https://doi.org/10.9790/0837-19827582>
- Automotive Company. (2019). *Business result report*.
- Automotive Company. (2021). *Consolidated Financial Statements Report*.
- Azanza, G., Moriano, J. A., & Molero, F. (2013). Authentic leadership and organizational culture as drivers of employees' job satisfaction. *Revista de Psicología del Trabajo y de las Organizaciones*, 29(2), 45-50. <https://doi.org/10.5093/tr2013a7>
- Bastian, M., Heimann, S., & Jacomy, M. (2009). Gephi: an open source software for exploring and manipulating networks. *International AAAI Conference on Weblogs and Social Media*.
- Becker, B. E., & Huselid, M. A. (1983). Investigation into New Pretreatments for the Printing of Wool and Wool-Blend Fabrics. *Research in Personnel and Human Resources Management*, 16, 53-101.
- Belias, D., Koustelios, A., Vairaktarakis, G., & Sdrolas, L. (2015). Organizational Culture and Job Satisfaction of Greek Banking Institutions. *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, 175, 314-323. <https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2015.01.1206>



- Bellou, V. (2008). Identifying organizational culture and subcultures within Greek public hospitals. *Journal of Health, Organization and Management*, 22(5), 496-509. <https://doi.org/10.1108/14777260810898714>
- Berson, Y., Oreg, S., & Dvir, T. (2008). CEO values, organizational culture and firm outcomes. *Journal of Organizational Behavior*, 29, 615-663. <https://doi.org/10.1002/job.499>
- Bortolotti, T., Boscari, S., & Danese, P. (2015). Successful lean implementation: Organizational culture and soft lean practices. *International Journal of Production Economics*, 160, 182-201. <https://doi.org/10.1016/j.ijpe.2014.10.013>
- Boyce, A., Nieminen, L., Gillespie, M., Ryan, A. M., & Denison, D. (2015). Which comes first, organizational culture or performance? A longitudinal study of causal priority with automobile dealerships. *Journal of Organizational Behavior*, 36, 339-359. <https://doi.org/10.1002/job.1985>
- Bulger, S. L. (1995). Performance management: The foundation for a high-performance organization. *National Productivity Review*, 15(1). <https://doi.org/10.1002/npr.4040150111>
- Cameron, K., & Freeman, S. (1991). Cultural Congruence, Strength, and Type: Relationships to Effectiveness. *Research in Organizational Change and Development*, 5, 10-15.
- Cantillo, E., & Daza, J. (2011). Influencia de la cultura organizacional en la competitividad de las empresas. *Escenarios*, 9(1), 18-23.
- Carrillo, A. P. (2016). Medición de la Cultura Organizacional. *Ciencias Administrativas*, 8, 1-13.
- Cascio, J. (2020). *Facing the Age of Chaos*. <https://medium.com/@cascio/facing-the-age-of-chaos-b00687b1f51d>
- Casida, J., & Pinto-Zipp, G. (2008). Leadership-organizational culture relationship in nursing units of acute care hospitals. *Nursing Economics*, 26(1), 7-15.
- Chang, C. L., & Lin, T. (2015). *The role of organizational culture in the knowledge management process*. 19(3), 433-455. <https://doi.org/10.1108/JKM-08-2014-0353>
- Chatzoglou, P., & Chatzoudes, D. (2018). The role of innovation in building competitive advantages: an empirical investigation. *European Journal of Innovation Management*, 21(1), 44-69. <https://doi.org/10.1108/EJIM-02-2017-0015>

- Chávez, J. de J., & Ibarra, J. P. (2016). Liderazgo y cambio cultural en la organización para la sustentabilidad Leadership and cultural change in the. *Revista de Estudios Interdisciplinarios en Ciencias Sociales*, 18(1), 138-158.
- Chen, C.-K., Wang, C.-W., & Yu, C.-H. (2017). Building a Total Quality Management model for cultivating the organizational culture and an empirical case study. *Journal of Quality*, 24(1), 3-17. [https://doi.org/10.6220/joq.2017.24\(1\).01](https://doi.org/10.6220/joq.2017.24(1).01)
- Chiera, E. (1994). High performance work organization - A promising future for American industry and organized labor. *Control Engineering Practice*, 2(4). [https://doi.org/10.1016/0967-0661\(94\)90013-2](https://doi.org/10.1016/0967-0661(94)90013-2)
- Clawson, J. (2014). Systems Theory and Organizational Analysis. *Darden Business Publishing*, 12(3), 1-10.
- Codreanu, A. (2016). A VUCA Action Framework for a VUCA Environment. Leadership Challenges and Solutions. *Journal of Defense Resources Management (JoDRM)*, 7(2), 31-38.
- Cooke, R. A., & Rousseau, D. M. (1988). Behavioral Norms and Expectations: A quantitative approach to the assessment of organizational culture. *Group & Organization Management*, 13(3), 245-273. <https://doi.org/10.1177/105960118801300302>
- Courageous Leader. (2017). *Organisational Culture Inventory (OCI)*. <https://courageousleaders.com.au/organisational-culture-inventory/>
- Cújar, A. C., Ramos, C. D., & Hernández, H. E. (2013). Cultura organizacional: evolución en la medición. *Estudios Gerenciales*, 29(8), 350-355. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.estger.2013.09.009>.
